


Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia



Orientabide
didaktikoak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURKIBIDEA

1. Materialaren helburua	2
2. Irakasgaiaren ezaugarritzea	3
3. Oinarrizko gaitasunak garatzeko ikasgaiak egiten dituen ekarpenak	4
4. Gizarte Zientziak ikasgaien curriculuma eta oinarrizko gaitasunak	10
5. Orientabide didaktikoak	14
5.1 Metodologia eta oinarrizko gaitasunak	14
5.2 Irakaslearen eta ikaslearen zeregina	19
5.3 Ikasgelaren kudeaketa	19
5.4 Espazioa eta denbora	20
5.5 Baliabideak eta materialak	22
5.6 Jardueren antolakuntza	23
5.7 Edukiak aukeratzeko / lehenesteko irizpideak	26
5.8 Gizarte Zientzien ikaskuntzari dagozkion alderdiak	27
5.9 IKTak eta Gizarte Zientziak	29
5.10 Ebaluazioa: ebaluatzeko irizpideak	30
6. Sekuentzia didaktikoen ereduak eta materialak	33
7. Bibliografia profesionala	38

1. Materialaren helburua

Oinarrizko gaitasunak curriculumean txertatzeak egoera berri bat planteatzen du, heziketa-jarduera bideratzeko balio behar duena. Hala, ikaskuntzan hainbat jardueramodu garatu ahal izango ditu ikasleriak eta egoera berriei aurre egiteko gaitasunak bereganatuko ditu.

Hezkuntzaz espero diren emaitzak hezkuntza-fasean ematen diren ikasgaiekin zuzenean lotutako ezagutzak barneratzeaz harago doaz. Alabaina, ikasgaiak ez dira garapena sustatzen eta oinarrizko gaitasunak bereganatzen laguntzen duten bakarrak, baizik eta helburu hori erdiesten beste faktore batzuk ere izango dute eragina, hala nola zentroaren antolakuntza, jarduera osagarriak, etab. Oinarrizko gaitasunen garapena beste hezkuntza-eragileen zeregina da ere, familia eta gizartea berarena, esaterako, pertsonen garapen integrala eskolara mugatu ezin baita.

Ikasleriak ikaskuntzaren eraikuntza kudeatu eta horien prozesuen inguruko hausnarketa egin behar du, eta irakasleak testuinguru irekiagoetan mugitu behar dira eta ikaskuntza funtzionalagoak eskaini behar dituzte, hortaz, bien zeregina nabarmen aldatu behar da jarduera bateratu hori eraginkorra izateko.

Prozesu horretan, erabakigarria izango da curriculumaren bidez oinarrizko gaitasunak garatzen ikasleari lagunduko dion orientabide didaktikoa. Hala, curriculum-dekretuetan zehaztutako gaitasunen ikuspegiarekin bat etorriz, heziketa-jarduerara gerturatzean datza helburua. Horretarako, dokumentu honetan oinarrizko gaitasunen ikuspegitik curriculumaren garapenerako esparru bat eratzen saiatu gara, eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko hainbat alderdi jorratu ditugu.

Hortaz, beharrezkoa da zenbait ildo metodologiko eta didaktiko aurkeztea hezkuntza-zentroen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen garapen koherentea sustatzeko eta gaitasunetan oinarritutako heziketa-ikuspegia bermatzeko.

Orientabide didaktiko horiek aurkeztearen xedea ikasgelako eguneroko jardueran oinarrizko gaitasunen ikuspegia txertatzea da. Orientabide horiek Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako ikasgaiaren testuinguruei, horren metodologiei eta ikuspegi horrentzako beharrezkoak diren ebaluazio-prozesuei lotuta daude.

Horien helburua da ikaskuntza-prozesua antolatzerako orduan irakasleentzako gida bat izatea, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako curriculumean bildutako printzipioak errespetatuz. Beraz, ikasgaiko helburu orokorrak bereganatzera zein oinarrizko gaitasunak garatzera bideratuta daude.

Orientabide horien abiapuntua ikaskuntza aktiboaren printzipioak dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren zati diren aldagai metodologikoen ataletan garatzen direnak.

2. Ikasgaiaren ezaugarritzea

Zer irakatsi? Zer nahi da ikasleek ikastea?

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren irakaskuntzaren helburua da ikasleriak ezagutzak, trebetasunak eta jarrera egokiak bereganatzea hurrengoak ulertzeko: **bizi diren munduaren errealitatea** -alderdi fisiko, sozial eta kulturaleri dagokienez-, iraganeko eta orainaldiko talde-esperientziak eta gizarte-bizitza garatzen den esparrua; halaber, bertako identitate historikoa eta kulturala osatzen duten ezaugarriak ezagutzea nahi da, esperientzia pertsonaletik ikuspegi globaleraino. Hala, ikasgai horrek elementu garrantzitsuak eskaintzen ditu, **bizi den ingurunea ezagutzen duen herritar konprometitu eta solidarioak osatzeko**, egungo gizartean eta, batez ere, euskal gizartearen aniztasun soziala eta kulturala balioesten dutenak, eta naturarekin, beren buruarekin eta lagun hurkoekin harreman mota berriak dituztenak.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historiako ikasgaiarako egungo curriculum-proposamenak, bestalde, ikaskuntza arlo guztietan oinarritzko gaitasunak garatzen laguntzen du eraginkortasunez. Zehazki, ikasleriari bere burua hobeto ezagutzen laguntzen dio, alderdi hauei dagokienez: errepikaezinak gara, beste pertsonekin gizartean bizi gara eta horiekin ezaugarri eta helburu ezberdinak dituzten hainbat mailatako taldeetan (familia, eskola, auzoa, udalerrria, herria, etab.) antolatzen gara. Talde horiek hobeto ezagutzen eta horietan aktiboki parte hartzen laguntzea da xedea. Interaktiboak dira, denboran zehar berkonfiguratu joan dira eta bizikidetzak eragindako hainbat jatorriko tentsioak eta eztabaidak dituzte eta izan dituzte, prozedura baketsu eta demokratikoen bidez heldu behar direnak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak ezagutza, trebetasun eta jarrera horietan sakondu nahi du, ikasleek aurreko fasean Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen ezagutza ikasgai bereganatu dituzten ezagupenak oinarri hartuta. Bertan, esperientzia oinarri hartuta eta modu globalean errealitatera hurbilduko gara, eta horren bidez ezagutuko da gizartea, banakako, bizipenezko eta subjektiboak diren alderdiak azpimarratuz. **Fase horretako ikasleriaren garapenak gizarte-ezagutza gehiago sakontzea ahalbidetzen du, gizarte-errealitatera hurbiltze analitikoagoa egiten delako:** kontzeptuak dibertsifikatu egiten dira, prozedurak zailagoak bihurtzen dira jakintza zientifikoari dagokionez, espazioak eta denborak hainbat mailatan aztertzen dira, eta jarrerak zein balioak finkatu egiten dira.

Horrek guztiak ikasgaiaren ikuspegi diziplinatuago bat ahalbidetzen du, Geografia eta Historia ardatz nagusitzat hartuko dituenak. Bi diziplina horiek gizarte alorreko ardatz egituratzaileak dira, giza eta gizarte-errealitatea ikuspegi global eta integratzaile batetik begiratzen baitute. Gainera, gizarte-gertaeren ahalmen egituratzaile handiagoa eskaintzen dute eta beste diziplina batzuen elementu komunak eta jakintzak jasotzen dituzte, berez diziplina anitzekoak baitira.

Historiak jakintzak eta metodoak eman behar dizkie ikasleei, **gizarteek denbora igarotzearekin batera duten eboluzioa uler dezaten, eta Geografiak, gehienbat, gauza bera egin behar du espazioari dagokionez.** Hala eta guztiz ere, giza eta gizarte-errealitatea gaur egun ulertzeko Gizarte Zientzien zati diren diziplinak beharrezkoak dira, bestelako analisi-ikuspegiak dituztenak. Esaterako, ekonomiaren, soziologiaren, artearen historiaren edo ekologiaren ekarpenak, errealitate horren ikuspegi osatzen dutenak.

Bestalde, gizarte-gertaerak eta fenomenoak gertatzen diren testuinguruaren ulermenak eta gizarteak jasandako aldaketa historikoen prozesuen analisiak zentzua hartzen dute **egun gizarteak dituen ezaugarri eta arazo nagusiak baloratzean, ulertzean eta horien inguruko iritzia ematean**. Ikuspegi horretatik, ikasleriari ezagutza globala ematea komeni da, egungo errealitatea denboran zeharreko giza eraikuntza gisa eta denbora historikoa ulertzeko esparru orokor gisa ulertzeko beharrezkoa dena.

Ikasgaiak ekarpen garrantzitsuak egiten ditu oinarrizko gaitasunen hainbat alorretan, hauetan batez ere: gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, kultura zientifikoarekin, teknologikoarekin eta osasunarekin lotutako gaitasunak, hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, informazioaren trataerarako gaitasunak, gaitasun digitala, arte eta kulturarako gaitasuna eta ikasten ikasteko gaitasuna. Alde batera utzi gabe gaitasun matematikoa eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

3. Oinarrizko gaitasunak garatzeko ikasgaiak egiten dituen ekarpenak

Nola laguntzen dute Gizarte Zientziek oinarrizko gaitasunen garapenean?

Oinarrizko gaitasunak helburuak dira. Eskola-curriculumak osatzen dituzten ikasgaien egituratzaileak izan behar dira, eta, aldi berean, curriculumak osatzen lagundu behar dute, **ezaugarri epistemologikoek** ahalbidetzen duten neurrian.

Galdera hurrengoa da: nola lagundu dezakete Geografia, Historia eta Gizarte Zientziek zeregin horretan? Edo, beste era batera planteatuta, zer trebetasun lotzen dira Geografiaren, Historiaren, eta modu orokorrago batean, Gizarte Zientzien ezagutzarekin?

***Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.*¹**

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna gure ikasgaiaren ikerketarekin estuki loturik dago. Esan daiteke **Gizarte Zientzien curriculum osoak laguntzen duela gaitasun horren jabetuntzan**, hain zuzen ere, egungo nahiz iraganeko gizarte-errealitatearen ulermena delako ikasgai beraren helburua, baina are gehiago lagunduko du kontuan hartzen bada ikasleriak erabiltzen jakin behar duela gizartearen, horien lorpenen nahiz horien arazoaren bilakaerari eta antolakuntzari buruzko ezagutza gizartean bizi ahal izateko. Zalantzarik gabe, gaur egungo gizartearen ezaugarriak, pluraltasuna, eta bizi garen gizarteko elementu nahiz interes komunak ulertzen laguntzen du, eta era horretan, **elkarbizitzarako mesedegarri diren sentimendu komunak garatzeko ekarpena egiten du**.

¹ ESCAMILLA, Amparo: *Las competencias básicas. Claves para su desarrollo en los centros*, Graó, 2008.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengo bidez:

- Inguruko harremanetan (familian, lagunekin eta lankideekin) besteen emozioez eta sentimenduez jabetzera bideratutako jarduerak.
- Ikasleengan asertibitatea, enpatia eta elkarrizketa jarrerak sustatzen dituzten egoerak proposatzea, arazoak, eragindako kaltea eta harremanak konpontzera iritsiz.
- Ikasleriak urrutiago dituen errealitateekin (auzoa, herria, probintzia, etab.) eta “glokalizazioa” kontzeptuarekin trebatzeko jarduerak.
- Planifikatzeko, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta erantzukizunak hartzeko ekimenak.
- Munduko herritar solidario, parte-hartzaile, demokrata eta kulturartekoak izateko oinarriak finkatzeko jarduerak.
- Denboran zehar gertatutako aldaketa sozio-historikoak identifikatzeko jarduerak.
- Egungo gizartearen erro historikoetara hurbiltzeko jarraibideak erabiltzea.
- Gizarte arazoaren aurrean argudioak eskatzen duten solasaldiak, eztabaidak eta itxurazko elkarrizketak.
- Gai baten inguruko jarrera bat izatea eskatzen duten kasuen eta horien konponbideen azterketa.
- Dilema moralen planteamendua, ikasleek balore eta praktika demokratikoetan oinarritutako iritzi etikoa izan dezaten.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Ikasgai honetan **informazioak duen pisua** hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna eta ikasgaiaren arteko harremanak bereizten ditu. **Irakurtzeak eta idazteak, entzuteak eta hitz egiteak** informazioa bilatzea, biltzea eta prozesatzea ahalbidetzen dute, baita ikasgaiaren erabiltzen diren testu motak ulertzeko, idazteko eta erabiltzeko gai izatea ere.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengo bidez:

- Hizkuntzekiko (koofizialak, minorizatuak, gertukoak, immigratuak, hilak, antzinakoak, etab.) interesa eta jakin-mina eta kulturen arteko komunikazioa sustatzen laguntzen duten jarduerak.
- Gertuko harremanetan (familia, lagunak eta lankideak) komunikazioa eta ezagupenen, beharren, emozioen eta sentimenduen trukea laguntzeko tresna gisa hizkuntza erabiltzeko proposamenak.
- Ahozko eta idatzizko adierazpide eta ulermen bide gisa hiztegi berezitua menperatzea eskatzen duten jarduerak. Análisi sozial eta historikoko termino eta kontzeptuen ezagupena eta erabilera: lurraldea, erakundeak, artea, ohiturak, eskubideak eta betebeharrak, elkarbizitza eta berdintasuna.
- Denboran zehar eta hainbat gizarte eta kultura esparruetan hizkuntzaren aldakortasuna eta komunikazio moduak behatzeko proposamenak.
- Elkarrizketa, solasaldi eta eztabaidarako aukera ematen duten jarduerak. Entzutea, adieraztea eta argudiatzea. Gizarte eta historiarekin lotutako gertaerak, intuizioak, ezagupenak, sentimenduak, ideiak eta iritziak komunikatzea: lurraldea, erakundeak, artea, ohiturak, ondarea, ekoizpen-sektoreak, eskubideak eta betebeharrak, elkarbizitza eta berdintasuna.
- Hainbat iturrietan kultura eta gizarteari buruzko mezu esplizitu eta inplizituak kritikoki

baloratzea sustatzen duten jarduerak. Pertsonen arteko komunikaziorako bideak. Gizarte komunikabideak.

- Testu mota ezberdinetara (informazio-, argibide- eta argudiozko testuak) hurbiltzea eragiten duten jarduerak, gizarte, kultura, historia, artea eta abarrei buruzkoak.
- Iritzi propioa sortzeko egiaztatutako informazioa interpretatzea eta gizarte eta historiarekin lotutako arazoei buruz zehaztasunez mintzatzea eta argudiatzea eskatzen duten jarduerak: lurraldea, erakundeak, artea, ohiturak, ekonomia, eskubideak zein betebeharrak, elkarbizitza eta berdintasuna.
- Norberaren pentsamendua sortzea, gai baten inguruko jarrera bat izatea eskatzen duten kasuak eta horren irtenbideak aztertzea helburu duten jarduerak.
- Dilema moralen planteamendua, ikasleek balore eta praktika demokratikoetan oinarritutako iritzi etikoa izan dezaten.

Matematikarako gaitasuna.

Errealitatearen alderdi kuantitatiboak eta espazialak ezagutzeak matematikarako gaitasuna garatzea ahalbidetzen du, ikasgaiak barne hartzen dituen hurrengo alderdiei esker: eragiketa sinpleak, magnitudeak, ehunekoak eta proportzioak, oinarritzko estatistikako ezagupenak, eskala numeriko eta grafikoen erabilera, forma geometrikoen erreferentzia- edo ezagupen-sistemak, neurketa-irizpideak, informazioen kodifikazio numerikoa eta horien adierazpen grafikoa.

Gizarte-errealitate deskribatzerakoan eta aztertzerakoan tresna horiek guztiak erabiltzearen ondorioz, ikasleek **aplikagarritasuna antzematen** duten egoera-kopurua handitzen da, **eta, beraz, ikaskuntzak funtzionalagoak bihurtzen dira.**

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengo bidez:

- Lurraldea neurtzeko eta adierazteko elementuak erabiltzen diren jarduerak.
- Mapetan eta lekuan bertan kokatzeko eta orientatzeko trebetasunak garatzea sustatzen duten jarduerak, horretarako ohiko tresnak eta IKTB erabiliz. Informazioa neurtzeko (indizeak, zatidura, eskalak), sailkatzeko, alderatzeko eta interpretatzeko tresnen erabilera, horretarako modelo, kontzeptu eta irizpide formalak aplikatuz eta Geografiaren elementu grafikoak eraikitze edo interpretatzeko gaitasuna erabiliz, informazioa errepresentatu eta alderatu ahal izateko.
- Ikerketa, neurketa eta irudikapen historikoko elementuen erabilerarekin lotutako jarduerak, neurketa kronologikoaren elementu nagusien ezagupena, ulermena eta erabilera sustatuz eta informazio historikoak irudikatze oinarritzko moduetan informazioa bilatuz: mapak, grafikoak, diagramak, etab.
- Pentsamendu matematikoaren hainbat moduen erabilera proposatzea gizarte-errealitatea eta errealitate historikoa interpretatzeko eta deskribatzeko.
- Estatistikaren erabilera proposatzen duten jarduerak familia eta gizarte eremuetako fenomenoak aztertze edo deskribatzeko: kultur aniztasuna, ingurunearekiko errespetua, sexuen arteko aukera-berdintasuna eta elkarbizitza baketsua, besteak beste.
- Matematikak erabiltzeko jarduerak proposatzea, ekonomia, erosketak, bidaiak, aisialdia eta beste arazo batzuk ebazteko eta interpretatzeko.
- Barra-diagramak, histogramak, maiztasun-poligonoak eta sektore-diagramak irudikatze edo interpretatzeko jarduerak, gizarte-eremutik ateratako gertaeren datuak erakusten dituztenak.

Zientzia, teknologia eta osasunerako gaitasuna.

Beste alderdiren artean, gaitasun horrek barne hartzen ditu **giza jarduera garatzen den eremu fisikoaren pertzepzioa eta ezagupena** eremu handietan zein ingurune hurbilean eta bi horien arteko elkarrekintza. Geografiaren ardatz nagusietako bat da giza jarduera gertatzen den **eremuaren zuzeneko edo zeharkako pertzepzioa**.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengo bidez:

- Lurraldea osatzen duten elementuak eta horien arteko harremanak identifikatzeko jarduerak.
- Elementu horiek ulertzea bideratutako jarduerak, gizartearen eta hura garatzen den ingurunearen elkarrekintzen emaitza diren heinean; banakoen eta gizarte-taldeengan lurralde antolamenduak dituen eraginak ebaluatzea eta lurralde eta paisaia motak alderatzea.
- Paisaien aniztasuna aztertzekeo jarduerak Denborarekin gertatutako aldaketak. Horiek babesteko eta kontserbatzeko baliabideak.
- Naturarekiko ditugun eskubideei eta betebeharreri buruz eztabaidatzea. Ingurune naturalaz gozatzeko ezagupenak aplikatzea eskatzen duten jarduerak proposatzea.
- Gizarte demokratiko baten biztanleen prestakuntzan zientziak duen zereginaren inguruko eztabaidak planteatzea, erabakiak modu arrazoituan hartzeko.
- Gizakien beharrak asetzeko eta bizi-baldintzak hobetzeko natur zientziek eginiko ekarpenak balioesteko jarduerak.
- Osasun-, ingurumen- eta kontsumo-gai baten inguruko jarrera bat izatea eskatzen duten kasuen eta horien irtenbideen azterketa.
- Ekoizpen-sektoreak ezagutzeko eta ingurunean eta bizimoduetan horiek duten eraginaz jabetzeko jarduerak.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.

Giza eta arte-kulturarako gaitasunari giza zientziek egiten dioten ekarpen nagusia da **ekintza artistikoaren adierazpenak ezagutzeko eta balioesteko aukera** ematea gizarte eta kulturen adierazpenak diren neurrian. Halaber, belaunaldiz belaunaldi transmititutako ondarearen balorazioa eta kontserbazioa aintzat hartzen ditu.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengo bidez:

- Ingurunean arte eta kulturaren arteko loturak aurkitzeko jarduerak.
- Ingurunekeo ezaugarri kultural adierazgarriak ezagutzeko jarduerak (ohiturak, bizimoduak, festak, etab.).
- IKTen bidez eremu ezberdinetako kultur adierazpenen aniztasuna behatzen laguntzeko proposamenak.
- Artea eta kultura denboran zehar ulertzea laguntzen duten bisitak.
- Hainbat momentu eta lurraldetako adierazpen artistikoen arteko harremanak behatzen lagunduko duten bisita kulturalak egitea.
- Jarduera artistiko eta kulturaletan parte hartzea adierazpide eta harremanetarako bide gisa.
- Elementu artistiko eta kulturalak ezagutzeko interesa eta sentsibilitatea sustatzeko jarduerak.
- Banakako eta taldeen jokabideetan arteak eta kulturak duen eragina balioesten laguntzeko jarduerak.

- Herritarren eskubide eta askatasunekin lotutako emozio eta bizipenen adierazpen plastikoa eta bisuala, musikala eta dramatikoaren inguruko eztabaidak.
- Tradizio kulturaletan eta adierazpen artistikoetan azaltzen diren dilema moralen inguruko eztabaidak.
- Kulturari eta arteari buruzko eztabaidak, gizakien beharrei erantzuten eta bizi-baldintzak hobetzen dituzten heinean.

Gaitasun digitala.

Fenomeno sozial eta ekonomikoak ulertzerakoan ***informazioa lortu eta ulertzeko trebetasunek*** duten garrantzirik dator informazioaren trataerarako gaitasunari eta gaitasun digitalari egiten zaion ekarpena, ikasgaiko ikaskuntza askoren nahitaezko elementua baita.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengoek bidez:

- Gizarteari, lurraldeari, erakundeei, kulturari, arteari eta abarrei buruzko informazioa lortzeko, berreskuratze, ebaluatze, biltzeko, ekoizteko, aurkezteko eta trukatzeko multimedia jarduerak.
- Mundu erreala eta mundu birtuala bereizteko simulazioak.
- Foroek bidez komunikatzeko eta harremanak izateko jarduerak.
- Giza zientziekin lotutako informazioa bilatzeko, lortzeko eta prozesatzeko (datu eta kontzeptu garrantzitsuak antolatze eta bereizteko) jarduerak.
- Baliabide egokiak identifikatzeko eta erabiltzeko jarduerak: aurkezpenak, diagramak, organigramak, grafikoak, taulak eta mapak egitea mapa kontzeptualak sortzeko; informazio konplexua aurkeztea edo ulertzea (simulazioak, eboluzioa denboran zehar, ekonomia, kontsumoa, etab.).)
- Eskuragarri dagoen informazioa balioztatzerakoan jarrera kritikoa eta gogoetatsua sustatzen duten proposamenak.

Ikasten ikasteko gaitasuna.

Gizarte Zientziak ikasgaiaren edukiek ikaskuntzarako erabilgarriak diren tresna intelektualak eskaintzen dizkiete ikasleei, eta horrez gain, arazoek ikuspegi estrategikoa eta gizartean gertatzen diren aldaketak aurreikusteko eta horiei egokitze jarrera positiboa izateko gaitasuna ematen diete.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengoek bidez:

- Nork bere burua ezagutzeko jarduerak, ikaskuntza autonomoan norberaren aukerak eta mugak ezagutu ditzan harremanak izateko, parte hartze eta integrazteko gaitasunak garatzerakoan.
- Gizarte- eta komunikazio-trebetasunak garatzeko jarduerak. Hauek dira horiek sustatzen dituzten teknikak eta edukiak: ahozko aurkezpena, solasaldia, eztabaida, hizketa eta elkarrizketa. Rolak simulazioa. Mota eta eduki askotako testuak irakurtzea eta ulertzea (gizartea, ekonomia, une historikoak, eskubideak eta betebeharrak,

gizarte-erakundeak, etab.).

- Pentsatzen ikasteko trebetasunak eta abileziak eta analisi- eta laburpen-teknikak praktikan jartzeko proposamenak.
- Gizarteari, lurraldeari, erakundeei, kulturari, arteari eta abarrei buruzko informazioa lortzeko, berreskuratzeko, ebaluatzeko, biltzeko, ekoizteko, aurkezteko eta trukatzeko multimedia jarduerak.
- Eskuragarri dagoen informazioa balioztatzerakoan jarrera kritikoa eta gogoetatsua sustatzen duten proposamenak.
- Museoetara, erakusketetara, topaketetara, agiritegietara, hemerroteketara, etab. bisitak egitea.
- Gizabanakoen eta taldeen arazoekiko sentiberatasuna sustatzen duten proposamenak egitea, ikaskuntzaren bidez horiek garatzen lagunduko duten egoeretan aplikatu ahal izateko.
- Ikaskuntza-modu eta erritmo ezberdinekiko errespetua, lankidetzeta eta laguntza adierazteko jarduerak.
- Ondasun kulturalak berdintasuneko baldintzetan baliatzeko eta gozatzeko gizabanakoek, herrialdeek, erakundeek eta instituzioek egindako ahalegina agerian uzten duten jarduerak.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.

Gizarte Zientzietako ikasgai honek norbanakoaren autonomia eta ekimenerako gaitasunari lagun diezaion, beharrezkoa da ***plangintza eta exekuzio-ekimenen*** garapena sustatzea, ***baita erabakiak hartzeko prozesuak ere***. Prozesu horiek presentzia nabariagoa dute eztabaidak edo bakarkako nahiz taldekako lanak egitean, pentsatzea, analizatzea, planifikatzea, jardutea, egindakoa berrikustea, aurreikusitako helburuak lortutakoekin alderatzea eta ondorioak eratorzea eskatzen baitu.

Bestalde, ikasgaiaren ikaskuntza propioek ***egiteko eta aurrera eramateko*** tresnak izan behar dute, hau da, gizarte antolakuntza eta funtzionamenduaren ezagutza eta analisi kritikoan oinarrituta, antza hobeak diren aukerak sortzeko balio behar dute, horiekin bat etorritz jarduteko.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiak gaitasun hori lortzen laguntzen du, hurrengoan bidez:

- Berdintasunaren, demokraziaren, giza eskubideen eta balioak babestearen aldeko eztabaidak.
- Lan-banaketa sozial eta sexuala eta ikuspegi historikoa duten aurreiritziak kritikoki baloratzeko aukera ematen duten jarduerak.
- Bidezko mundu bat eraikitze xedea duten eztabaidak. Bidezko harremanak: duintasuna eta errespetua. Genero indarkeria.
- Oinarrizko giza eskubideak hizpide duten eztabaidak. Zereginak. Arauak. Errespetua eta autoritatea.
- Giza eskubideak eta betebeharrak amaitu gabeko konkista historiko gisa hartzen lagunduko duten jarduerak.
- Herritarrekin eta herritar-kontzientziarekin lotutako kasuak aztertzea: erantzukizuna, elkartasuna, justizia. Erabaki arduratsuak hartzea.
- Pentsamendu kritikoa trebatzeko errealitatetik hartutako proposamenak.

4. Gizarte Zientziak ikasgaiaren curriculuma eta oinarrizko gaitasunak.

Nola dago antolatuta Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren curriculuma?

Gizarte Zientziak ikasgaiaren curriculuma honela antolatuta dago:

- Sarrera, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaia justifikatu eta ezaugarritzen duena.
- Oinarrizko gaitasunen eranskina; bertan definitu egiten dira oinarrizko zortzi gaitasunei ikasgai honek egiten dizkien ekarpenak.
- Ikasgaiaren helburuak gaitasun gisa.
- Edukiak, kurtsoko eta blokeka.
- Kurtso bakoitzeko ebaluazio-irizpideak; irizpide bakoitzeko ebaluazio-adierazle kopuru aldakor bat zehaztu da.

Nola lagundu dezakete Gizarte Zientziek fase horretako helburuak eta oinarrizko gaitasunak lortzen? Bilakaera historikoaren eta lurralde beraren ezagutza-eremuen zer ikaskuntza agertzen dira gaitasun horietan?

Oinarrizko gaitasun horiek bereganatzeko, Gizarte Zientziak ikasgaiak gero eta gehiago behartzen ditu irakasleak **irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko eremu guztietan aldaketak egitera**, ikaskuntza-modu eta metodoei dagokienez, batez ere.

Hurrengo taulak Gizarte Zientziak ikasgaiaren helburuak eta oinarrizko gaitasunen arteko erlazioa erakusten du, eta bertan plantamenduaren koherentzia ikus daiteke.

OINARRIZKO GAITASUNAK	
a)	Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
b)	Matematikarako gaitasuna.
c)	Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
d)	Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
e)	Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
f)	Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
g)	Ikasten ikasteko gaitasuna.
h)	Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Helburua	a)	b)	c)	d)	e)	f)	g)	h)
1.- Identifikatzea gizarte-fenomenoen eta gertaera politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko harremanak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak, eta ezagutza hori erabiltzea ulertu ahal izateko egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten hainbat zergatiak eta emakumeek eta gizonak gizarte horietan duten zeregina, historiaren ikuspegi zabala eta kritikoa lortzeko.						X	X	
2.- Identifikatzea, kokatzea eta aztertzea, hainbat eskalatan, ingurune fisikoa osatzen duten oinarrizko elementuak, horien arteko elkarrekintzak eta giza taldeek espazioa eta horren baliabideak erabiltzean sortzen dituztenak ulertzeko; jarduera horietan jatorria duten ondorio ekonomikoak, sozialak, politikoak eta ingurumenekoak ebaluatzea, eguneroko bizitzako egoeretan jokatzeko moduak hobetzeko.	X	X				X	X	

3.- Era autonomoan identifikatzea, kokatzea eta aztertzea aniztasun geografikoaren eta Europako eta munduko eremu geoekonomiko handien oinarriko ezaugarriak eta Europako, Espainiako eta Euskadiko giza ezaugarri eta ezaugarri fisikoak, edozein gizarte-arazo edo gaiari etorkizunean modu fidagarrian aurre egin ahal izateko.		X				X	X	
4.- Denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea munduko eta Europako gertaera historiko garrantzitsuenak, gizadiaren garapenari buruzko ikuspegi globala izateko eta horren interpretazio bat egiteko, kide garen gizarte-komunitateen aniztasunaren sorrera ulertzen lagunduko duena.	X				X	X	X	
5.- Talde-lanak egitea eta egungo gizarte-errealitatearen inguruko eztabaidetan parte hartzea, jarrera aktiboa, konstruktiboa, kritikoa eta tolerantzarekin. Talde-lana egiteko teknikak erabiliko dira eta horiek gizartean baliatzearen alde egingo da; iritziak era arrazoituan emango dira eta elkarriketa hartuko da giza eta gizarte-arazoak ebazteko beharrezko bide gisa.			X		X	X	X	X
6.- Identifikatzea eta balioestea Euskal Herriko adierazpen artistiko garrantzitsuenak, baita urrunagoko beste kulturenak ere, gizadiaren garapen artistikoari egindako ekarpena aintzat hartzeko eta balioesteko eta gure eta beste kulturen ondare historikoa, artistikoa, kulturala eta naturala balioesteko eta errespetatzeko, norberaren eta gizarte osoaren aberastasunerako baliabidetzat hartuz.						X	X	
7.- Norbera bakarra eta konplexua dela onartzea, besteekiko harremanetan norberaren bertuteak eta akatsak identifikatuz; konplexutasun horretan euskal gizarteko kide egiten duten ezaugarri kulturalak jabetzea eta horiek balioestea, aldi berean beste talde batzuen kide dela jakinda, eta, oro har, gizakia dela onartuz, tolerantzia eta errespetuzko jarrerak izanda gizartea eraikitzeke partaidetza aktiborako bidea den neurrian.					X	X	X	
8.- Kultur aniztasuna baloratzea, herriek eta norbanakoek nortasuna izateko eskubidea den aldetik, eta aintzat hartzea bizi den gizarte eta kultur komunitateen pluraltasuna, haietan parte-hartze eraginkorra izateko, tolerantzia eta beste kulturekiko errespetuzko jarrera agertuta.						X	X	
9.- Aztertzea eta ezagutzea gaur egungo gizartearen arazo larrienak eta izan ditzaketen erro historiko-sozialak, horiei buruzko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua sortzeko eta gizabanakoen eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko jarduera eraginkorrak sustatzeko eta martxan jartzeko.	X	X	X	X	X	X	X	X
10.- Geografiak, Historiak eta, oro har, Gizarte Zientziak bereizgarritzat dituzten oinarriko ikerkuntza-teknikak, prozedurak eta kontzeptuzko tresnak aplikatzea, lan monografikoak eta ikerketak egiteko (banaka edo taldeka), arloko berezko hiztegia zorrotz eta zehatz erabilia.	X	X	X	X	X	X	X	X
11.- Egituratzeta eta erabiltzea denbora-orientazioko kategoriak (iragana, orainaldia eta etorkizuna), denborari lotutako posizioak (segida, aldiberekotasuna, diakronia eta sinkronia) , iraupenak (gertaera faktikoak, egoeraren araberakoak, egiturazkoak eta iraupen motzeko, ertaineko edota luzeko fenomenoak), denboraren neurtzea (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa), bilakaera sozial eta historikoa antolatzeke eta laburtzeko.		X				X	X	
12.- Zorrotz bilatzea, aukeratzea eta erlazionatzea hainbat jatorrietako informazio grafikoa, ikonikoa, estatistikoa eta kartografikoa eta ahozkoa, barne hartuta ingurune fisikoak eta sozialak, komunikabideek eta informaziorako eta komunikaziorako teknologiek eskaintzen dutena, lortutako emaitzak besteei era antolatuan eta ulergarrian jakinarazteko.	X	X	X	X	X	X	X	X
13.- Ezagutzea gizarte demokratikoen egitura antolatzaileak eta funtzionamendua, oinarritzat dituzten balore eta printzipioak balioetsiz eta					X	X	X	

lorpen ukaezin eta bakerako beharrezko baldintza gisa hartuta, helburu honekin: horietan partaidetza kontziente, arduratsua eta kritikoa sortzeko, non jarrera eta egoera diskriminatzaileak eta ez bidezkoak salatuko baitira eta eskubiderik edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikorik ez duten herriei, gizarte-taldeei eta pertsoneri elkartasuna adieraziko baitzaie.								
14.- Identifikatzea eta aztertzea Europako Batasuneko erakundeak eta horien antolakuntza politikoa eta administratiboa, Europako Batasuna Europako nazio eta eskualde guztiak harremanetan jartzeko eta parte hartzeko esparrua dela ulertuz, nazioz gaindiko proiektua baita.				X	X	X		
15.- Ikasgaiaren edukiak modu pertsonalean, sormenarekin eta zuzenki azaltzea eta komunikatzea, Gizarte Zientzien hiztegi berezitua erabiltzea, bestelako hizkuntzen bidez adierazitako datuak eta informazioa aukeratzea eta interpretatzea eta ikaskuntza-prozesuaz gogoeta egitea.	X	X	X	X	X	X	X	X

Zer ondorio ditu Gizarte Zientzietako irakasleen ikasgeletako lanean?²

Aurreko hezkuntza-sistemek xede zuten ikasten jarraitzeko gaitasuna garatzea eta fase guztiak bukatutakoan prestakuntza profesionaleko maila egokia lortzea.

Orain, ikasleak gizarteratzera bideratzen da hezkuntza-sistema, non lan-mundua horren zati bat baino ez den. **Herritar arduratsuak, kritikoak eta gizartean parte hartzen dutenak** lortu nahi dira. Helburu hori erdiesteko, Gizarte Zientziak eta horrekin lotutako ikasgaiak garrantzi handia dute, herritartasunerako hezkuntza eta erlijioen historia kasu.

Oinarrizko gaitasunen agerpenak eskola-programen eta ikasgaien helburuak berrantolatzea behartu egin du.

Aurreko taulak helburuen eta gaitasunen arteko lotura agerian utzi du. Eredu hori jarraituz, Gizarte Zientzietako curriculumaren beste atalen arteko koherentzia bera ote dagoen aztertuko da orain.

Ebaluazio-irizpideen eta horiei dagozkien adierazleen eta ikasgaiaren helburu orokorren arteko koherentzia aztertu da, eta amaitzeko DBHko 4. mailan ikasgaiak garatu beharreko oinarrizko gaitasunak adierazten dira.

² VELILLA, Javier in Íber aldizkaria: *Competencias curriculares y ciencias sociales*, 55. zk., 2008ko urtarrila.

EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	HELBURU OROKORRAK	OINARRIZKO GAITASUNAK
<p>1. Denboran eta espazioan kokatzea aro garaikideko Euskadiko, Espainiako eta munduko aro eta gertaera gorabeheratsuak eta prozesu historiko garrantzitsuenak, historiaren ikerketako ohiko arauak eta kontzeptuak aplikatuz.</p> <p>1.1. Identifikatzea, aztertzea eta alderatzea iraupen eta erritmo ezberdineko garapen eta aldaketa historikoko prozesuak</p> <p>1.2. Deskribatzea Euskadiko lurraldeetako bilakaera historikoaren ezaugarri nagusiak Europako eta munduko testuinguruetan.</p> <p>1.3. Irudikatzea friso kronologiko batean XVIII. eta XXI. mendeen artean euskal lurraldeetan gertatutako gertaera garrantzitsuetako batzuk, Espainiako eta Europako historiaren bilakaerarekin paraleloan. Horien arteko loturak ezartzea eta iraupenak eta aldaketak aurkitzea.</p> <p>1.4. Seinalatzea gertaera historiko baten edo gehiagoren aurrean gertatutako aldaketak, bilakaera edo berdin mantendutako alderdiak eta fase batetik bestera igarotzea eragiten duten une eta prozesuak; horiek guztiak XVIII: mendetik gaur artera bitarteko bilakaera historikoarekin lotzea.</p> <p>1.5. Aurkitzea aldiberekotasuna eta aldaketa adierazten duten ezaugarriak eta aro batetik bestera igarotzea eragiten duten aldaketak eta uneak; gertaera horiek XVIII. mendetik gaur egunera arteko bilakaera historikoarekin lotzea. 1.6. Diakronikoki eta sinkronikoki aztertzea XVIII. eta XXI. mendeen artean gertatutako gertaera, fenomeno edo prozesu historiko bat lurralde-eremu guztietan.</p> <p>1.6. Diakronikoki eta sinkronikoki aztertzea XVIII. eta XXI. mendeen artean gertatutako gertaera, fenomeno edo prozesu historiko bat lurralde-eremu guztietan.</p>	<p>4. Denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea munduko eta Europako historiako gertaera historiko garrantzitsuenak, gizadiaren bilakaerari buruzko ikuspegi globala izateko eta horren interpretazio bat egiteko, kide garen gizarte-komunitateen aniztasunaren sorrera ulertzen lagunduko duena.</p>	<p>a) Zientzia-, teknologia eta osasun-kulturarako gaitasuna.</p> <p>b) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.</p> <p>c) Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.</p> <p>d) Ikasten ikasteko gaitasuna.</p>

5. Orientabide didaktikoak.

Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren helburuak eta edukiak aukeratzeko orduan kontuan hartu da **fase horretan Herritartasunerako hezkuntza eta giza eskubideak eta herritartasunerako hezkuntzak ikasgaiak ematen direla**, gizarte arloko ezagutza osatzen dutenak. Zuzenean lotuta dauden alderdiei dagokienez bi modutan jokatu da, ikasgai horrek baino ez duen ikuspegia bilatu da edo beste irakasgaiak osatu ditzakeen ikuspegia aukeratu da.

Bestalde, ikasgai hori garatzen den fasearen izaera bikoitza -terminala eta propedeutikoa- aintzat hartu da ere.

5.1. Metodologia eta oinarrizko gaitasunak.

Nola ekin behar zaio Gizarte Zientzien irakaskuntzari?

Fase honetan ikasleriak burutzen duen garapen intelektualak, hots, pentsamendu konkretutik abstraktura igarotzeko prozesuak, ikasgai honen irakaskuntza eta ikaskuntza errazten du; bi diziplina horien konplexutasunak, ordea, zenbait zailtasun aurkezten ditu honako hauei dagokienez: **espazio- zein denbora-nozioak**, giza eta gizarte-gertaeren **intentzioso eta kausa anitzeko izaera** eta **mota askotako informazioen prozesatzea**.

Horregatik, maila guztietan **lan jarraitua egin** beharko da, eskolako fasean zehar nozio horiek pixkanaka bereganatzeko. Aldi berean, ikasgelan Gizarte Zientziak lantzeak aukera eman behar die ikasleei jardueren aniztasunera egokitzeko, baliabide hauen bidez, besteak beste: curriculum-materialak, indartzeko eta zabaltzeko lanak, beste hizkuntzen erabilera (idatzizkoa, ikus-entzunezkoa, multimedia, grafikoa, etab.), motibazioaren sustapena, azalpenezko estrategiak eta ikerketa-estrategien konbinazioa eta estrategia didaktikoen erabilera (lankidetzat, kasuen ikerketa, ulertzera bideratutako hezkuntza, etab.).

Informazioaren erabilera egokiarekin lotutako hainbat tekniketara hurbilduko da ikaslea, esaterako: behaketa, dokumentazioa, tratamendua, antolaketa, irudikapen grafikoa edo komunikazioa. Aldi berean, Gizarte Zientzien unibertsoa osatzen duten diziplina bakoitzaren prozedurak eta teknikak menderatzen laguntzen duten lanak egingo dira, eta bi alderdi horiei esker, ikasleek ezagutza ez itxiak jasoko dituzte eta gai izango dira ikasgai horretatik abiatuta etorkizunean beren kabuz ikasteko, gero eta autonomoago bihurtuz.

Ez dugu ahaztu behar Gizarte Zientziak ikasgaitik lantzea ikaslea inguratzen duen eta bera zati den **gertuko errealitatearen** ezagutza, eta hori abiapuntutzat hartu behar dugu espazioan urrunago dauden beste errealitate batzuk ulertzeko, haietako zati ere bai baita, eta haietan esku-hartze aktiboa baitu.

Zentzu horretan, eraldaketa garrantzitsuak jasaten ari da Europa; hura bateratzeko prozesua proiektu izugarri garrantzitsua da eta geroari irekita dago, eta, hein handi batean, egun ikasgeletan prestatzen ari diren ikasleek erabakiko dute haren etorkizuna.

Helburuek eta edukiek zehazten badute zer irakatsi behar den, orientabide didaktikoek **nola eta noiz irakatsi** behar denari buruzko jarraibideak ematen dituzte.

Zeintzuk dira gizarte-zientziei ekiteko estrategia metodologiko onenak?

Curriculumeko ikasgaietan egindako aldaketek eta, zehazki, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaia egindakoek zalantza ugari sortu dituzte erronka berriei aurre egiteko estrategia metodologikoen egokien inguruan.

Ikasgai horretan **testuinguru formal eta informaletan** gauzatutako ikaskuntzek dute eragina. Hortaz, ikasgaia garatzeko estrategia metodologikoen garapen hori gauzatzen den testuinguruari helden diete.

Irakaslearen ordean **ikaslea ardatz gisa duen paradigma metodologikoa** ari gara, hortaz, ikasleriak gehien balioesten eta erabilgarritzat jotzen dituen estrategiak lehenetsiko dira.

Hala, **komunikazioa, partaidetza eta norberaren ekimena** sustatzen duten estrategiak elkartuko dira. Horrek esan nahi du ideiak adierazteko aukera duela ikasleak, ikasgelaren dinamika aldatzeko esku hartu dezakeela eta egiten dituen jarduerak era askotakoak direla. Halaber, talde-lana baloratzen da, ezagutzak partekatzea, komunikatzea eta trukaketa ahalbidetzen duen estrategia baita.

Ikaslearen jardueran oinarritzen direnez, **estrategia interaktiboak** dira baldintza horiek betetzen dituztenak, ikasleak ikaskideekin eta irakaslearekin jardutean ezagutzak berriro landuko baititu.

Hala, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaien sozio-historikoaren esparruko hurrengo estrategiak lehenesten dira:

- Kasuen analisia
- Proiektuak (hipotesiak egiaztatzeko ikerketak)
- Problemen ebazpena
- Simulazioak
- Ulertzerak bideratutako hezkuntza

Estrategia horiek **ezagutzen berreraikitze sozialean** oinarritutako jardueraren esparrua eskaintzen dute, ideien komunikazioa eta azalpena laguntzen dutenak, eta, egiaztapenaren bidez, ondoren aldatu eta berriro landuko direnak.

Hala, ikasleek gai historiko edo geografikoen inguruko iritziak ematen dituztenean, horien inguruan dituzten **irudikapenak berriro landu, aberastu eta hobetu** ditzakete ikasgelan gertatzen den ideien egiaztapenetik eta gizarte-elkarrekintzatik abiatuta.

Laburbilduz, ikaskuntzaren teoria sozio-kulturaletan oinarritutako estrategia metodologikoa dira:

- Lan-metodo hauetan erabiltzen diren teknikak ikaskuntza errazten duen pertsona batek zuzendu behar ditu; horren helburua izango da **ikasleen jarduerara bideratutako ikaskuntza garrantzitsuak lortzea** prestakuntza-aldian zehar, horretarako ikaslearen potentziala erabiliz.
- Estrategia metodologikoa horietan **talde-lana** nagusitzen da; bertan ikasleak dira jardueraren arduradunak, eta horrek konpromisoa eta partaidetza handitzen du.

- Egungo gizarte honetan gizarteari eta horien osagaiei buruzko era guztietako informazioa jasotzen dute ikasleek uneoro, eta horregatik **informazio hori antolatzen jakin** behar da, garrantzitsuena hautatuz, hura moldatzen jakiteko eta aurrerago erabiltzeko.
- Azalpenen eskoletan ikasleek duten jarrera pasiboa talde-lanen **parte-hartze aktiboarekin** ordeztzen da, eta azalpenezko metodoenak ez beste helburu batzuk lor daitezke, ikasleen partaidetza eta erantzukizuna handitzen delako. Kontuan izan behar dugu hori dela Gizarte Zientzietako helburuekin eta edukiekin erabat koherentea den planteamendu metodologikoa.
- Talde-lanari esker, era egokian taldekatutako ikasleek **lan zehatz bat egin eta eztabaidatzen dute, kanpoko jarduera batean parte hartzen dute eta arazo praktikoak ebazten dituzte**. Ikasleek lan-munduan aplikatuko dituzte ezagutzak, horregatik dira hain garrantzitsuak talde-lana eta partaidetza aktiboaren bidezko integrazioa.

Kasuen azterketa.

Kasuen azterketari esker egoera didaktiko motibatzaile eta dinamikoak sortu daitezke, eskola transmisiboen bestelako gela-giroa sortzen dutenak. Taldean lan egiten ikasten da eta errazagoa da ikasleen interesa piztea **izaera sozial eta historikoko gai ei dagokienez**.

Gizarte-gertaerak edo prozesuak biltzen dituen kasua aztertzea baliagarria da gaiaren inguruan ikasleek duten ideiak eta kontzeptuak azalertzeko, ezagutza teorikoak egoera praktikoetara aplikatzeko, komunikaziorako gaitasunak garatzeko eta autonomia, norberaren ezagutza eta autoestimua sustatzeko.

Horren adibide bat egoera konkretu baten deskripzioa da, horretatik eta hortik abiatuta ikasteko helburuarekin egin dena. Gure kasuan, egoerak aukeratzeko egungo edo iraganeko **gizarte-errealitatea**, ikaslearen ingurune hurbila eta urrun ditugun gizarteak baliatuko ditugu. Kasua ikasleei aurkeztuko zaie, banaka eta taldeka aztertzeko, informazioa biltzeko eta erabakiak hartzeko.

Metodoa honetan datza: egoera aztertu behar da, arazoak definitu eta hartu beharreko ekintzei buruzko ondorioak atera. Ideiak arrazoitzeko eta defendatzeko aukera dago, eta taldearen ekarpenekin batera, horiek berriro landuko dira.

Irakasleriak **zeregin garrantzitsua** du, beharrezkoak diren materialak prestatzeaz gain, ikasgelaren kudeaketan dinamizatzaile lanak egin behar baititu.

Lanaren garapena bideratu behar du baina emaitzak aurreratu gabe eta protagonista izan gabe.

Beharrezkoak diren jarraibideak eman behar ditu, trukeak erraztu eta talde-komunikaziorako teknikak baliatu (argitu, birformulatu, galdetu, azaldu, berrelikatu, ahozkoa ez hizkuntza erabili, entzun, etab.).

Aurkezten diren kasuek oinarritzko eskakizun batzuk bete behar dituzte:

- Egiantzekoak edo benetakoak izan behar dira. Egoera erreal edo gerta daitezkeen egoera izan behar da, logikoa eta onargarria.
- Ikasleentzat zentzua izan behar dute, egoerarekin identifikatuz gero, euren inplikazioa handitzen baita.
- Izaera sozialeko egoera arazotsua aurkeztu behar dute, ikasleei diagnostiko bat egitea eta erabakiak hartzea ahalbidetuko diena.
- Ez da konponbide bakarra egon behar, eztabaida eta bat ez etortzea onartuko dira.
- Ikasle guztien parte-hartzea eta protagonismoa sustatu behar dute.

Abantailak:

- Pentsamendu kritikoa garatzen du.
- Beste ikuspegi batzuk eta arazo sozial edo historiko bat ebazteko aurki daitezkeen konponbideak ezagutzeko aukera ematen du.
- Ikasleen arteko eztabaida eta komunikazioa sustatzen ditu, bai eta horien eta eztabaida zuzentzen duen irakaslearen artekoa ere.
- Ikaskuntza askoz eraginkorra da ikasleak gaitasuna ahal bezain errealista den egoeran garatzen duenean eta jarduteko modua ondoren esplizituki aztertzen duenean.
- Arazoak ebazteko eta erabakiak hartzeko gaitasunak garatzen ditu.
- Ikasleen artean interes-maila altua mantentzen laguntzen du, mundu

Proiektuka lan egitea.

Bertan, garatu beharreko gai bat edo gauzatu beharreko ideia bat proposatzen zaie ikasleei edo haiek aukeratzen dute: helburu hori lortzeko beharrezkoak diren zereginen plangintza egingo dute, ideia gauzatuko dute, talde-ikasgelan, ikastetxean edo beste testuinguru batean aurkeztuko da eta azkenik prozesua eta emaitza ebaluatuko dira.

Jarduerak ikasleengan jartzen du arreta, horiek era autonomoan jardungo dute eta talde txikitik antolatuko dira. Irakaslea, berriz, gida gisa arituko da, baliabideak eskainiko ditu eta prozesua antolatuko du.

Egungo baldintzetan, proiektuka lan egiteak ikasleriaren ekimena eta protagonismoa sustatzen du eta pertsonen arteko komunikazio-egoerak sortzeko, arazoak aztertzeko eta ebazteko eta egoeren ikuspegi globala izateko aukerak handitzen ditu.

Lan-modalitate hori oso ondo egokitzen da Gizarte Zientzien interes gaitara. ***Gai bat monografikoki eta modu fokalizatuan lantzeko*** aukera ematen du, eta horrek kausa aniztasuna eta zorrotasun zientifikoa indartzen du gizarte-errealitatea aztertzerakoan.

Simulazioak.

Egoera erreal edo hipotetiko bat era sinplifikatuan birsortzeko edo aurkezteko balio dute simulazioek.

Jarduera-multzo handia biltzen dute simulazioek –gizarte-simulazioa, enpatia, rolak, jokoak eta beste-, eta gertatzen den oro “demagun...” epigrafean sartzen dute, **ukroniak oso modu errealean lantzea ahalbidetzen** dutenak.

Horietan guztietan, ikasleen protagonismoak, elkarrekintzak eta iritziak alderatzeak ikasten laguntzen du.

Ikasleei erreferentziazko esparru bat eman behar zaie, modu egokian jardun dezaten.

Simulazioarekin lortu nahi diren helburuak adieraziko dira eta ikasitakoa berriro landuko da, ezagutzak sistematizatuz eta egituratuz.

Simulazio-motak:

- **Kokapen ariketak** eta simulazio jokoak Geografian erabiltzen dira batez ere, eta horien helburua da, besteak beste, giza jardueren, hirien, eraikinen, errepideen, trenbide-sareen eta lurralde-antolamenduen kokapenak zehaztea. Ikasleek ebatzi behar dute planteatutako jokoak.
- **Enpatian oinarritutako jarduerak** iraganeko gizakien edo beste kulturen ekintzak ulertzeko gaitasuna eta prestutasuna garatzen laguntzen dute, horien lekuan jartzea edo gertakariak eta egoerak ulertzeko modua ezagutzea ahalbidetzen dietelako. Jarduera-mota horiek eragile historikoen asmoak eta motibazioak ulertzen laguntzen dute.
- **Dramatizazioak** deitutako simulazioetan, enpatiak eta rolek garrantzi handia dute, irudikatzen den pertsonaiak egingo lukeen moduan jardutea ahalbidetzen dutelako. Horietan, esaten dena handitzea eduki hezitzaileak finkatzeko baliabidea izan daiteke eta beste garai edo arazoetan murgiltzeko aukera ematen du.

Ulermenean oinarritutako irakaskuntza.

Ezarri nahi den paradigma metodologiko berri honen barruan ulermenean oinarritutako irakaskuntzaren eredia txerta daiteke, **ikasleen gizarte-pentsamenduekin lotutako gaitasunak** garatu nahi dituenak.³ Jakitea eta ulertzea ez da gauza bera.

Ukertzeak esan nahi du ezagutza erabiltzea, beste egoera batzuekin erlazionatzea eta horietara estrapolatzea eta topiko edo gai bat norberaren hitzekin adieraztea.

Iragana eta oraina lotzen jakitea da, errealitatea ikuspegi ezberdinetatik ikusten jakitea, errealitatea ikuspegi ezberdinetatik ezagutzea, errealitatea berezko kategoriekin izendatzea eta ikasitakoa praktikan jartzea ahalbidetzen duten jarduera zehatzak aurrera eramatea.

Ulermenean oinarritutako irakaskuntza ereduaren funtsei helduta, ezinbestekoa da ulermen eta ikasketa-prozesuetan ikasleek esperientzia praktikoak egitea, **gogo-pizgarriak, motibatzaileak eta erronka intelektualak direnak.**

Horrez gain, ulermena sustatzeko hau hartu beharko litzateke kontuan: nolakoak diren ikasleak, zein gai interesatzen zaien, noiz agertzen duten interesa edo noiz sentitzen duten erronka bota dietela, zer gertatu behar da esanahi berriak eransteko eta eguneroko bizitzan horiek erabiltzeko.

³ ROJAS, M^a Teresa in Íber aldizkaria: *Enseñar historia desde las competencias para la comprensión: el EpC de la Universidad de Harvard*, 52. zk, 2007.

5.2. Irakaslearen eta ikaslearen zeregina

Zein da irakaslearen zeregina?

Aurrez aurkeztutako proposamen guztien erdigunea **ikasleriaren jarduera bada ere**, garrantzitsua da irakasleari esleitzen zaion eginkizuna, gizarte-ezagutza eraikitzen aktiboki parte hartzen duelako, ikasten laguntzen duten egoera didaktikoak sortzen dituelako, eta ideiak adierazten eta ezagutzak egituratzen laguntzen dielako ikasleei.

Orain irakasleak ez du ezagutza osoa monopolizatzen, baizik eta **ezagutzaren eta ikaslearen arteko bitartekaria** da.

Irizpideetan oinarrituta ikasleak informazioa aukeratzea nahi du eta hori ulertzea sustatzen du, baita eskola garaiko eta bizitza osoko prestakuntzaren osagai baliagarri bilakatzea ere.

Ikasleriak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruz duen ezagutzan ere aldaketak gertatuko dira; izan ere, **irakasleak ikasleei jakinaraziko dizkie ikaskuntza-prozesuan zehar lortu nahi diren helburuak eta prozesuaren ebaluazio-ezaugarriak**.

Irakasleak ez du ezagutzak, ideiak, etab. transmititzeko funtzio soila izango. Orientabide horren harira, irakasleriak ez du soilik bukatutako ezagutzak transmitituko, baizik eta horiek izan ditzaketen interpretazioak aurreratuko ditu, bukaerako forma izan arte banaka eta taldeka ikasleak berriro landuko dituenak.

Zein da ikaslearen zeregina?

Ikasleak alde batera utziko du zeregin pasiboa, irakasleak transmititutako informazioaren hartzaille hutsa izatearena, alegia.

Orain, jada ez du transmititutako informazioa errepikatuko. Aldiz, **eragile aktiboa eta parte hartzailea da orain ikaslea, jasotzen duen informazioarekin kritikoa**. Irakaslearekin eta gainerako ikasleekin batera esanahiak osatzea nahi du.

Bestalde, ikaslea ez da jada banakotasun bat, taldekideekin batera **talde ikuspegi** garrantzitsua garatzen baitu.

5.3. Ikasgelaren kudeaketa

Ikasgela, lan-esparrua.

Ikasgela ulertzen da egokitzeko ahalmena duen gizarte-sistema konplexu gisa. **Mundua, aldamenekoa eta norbera ulertzea bideratutako ikasgela da.**

Beharrezkoa da, lehenik eta behin, lan egingo dugun ikastetxe eta ikasgelaren irakasleen egoera ahalik eta zehatzen aztertzea eta, aldi berean, ikastetxeko mikrokosmosaren eta inguruko errealitatearen makrokosmoaren arteko harremanak balioztatzea.

Gizarte-zientziei dagokionez, eskola eta gizartea erlazionatzearen eginkizunak aberastasun eta konplexutasun handia du, ikasgelan gizartearen elementu konfiguratzaileak agertzen baitira, horien tentsio eta kontraesanekin batera.

Mundua ulertzeak norbera deszentralizatzea eskatzen du. Objektu edo fenomeno bat ulertzea horiekin jardutea delako.

Horregatik, **hitz egiteko eta lan egiteko gune publikoa da ikasgela**.

Gune demokratikoagoa bilakatu da orain ikasgela, irakaslearen eta ikaslearen eta ikasleen arteko berdintasunezko harremanekin. Bertan, ikuspegi holistikoa erabil daiteke hipotesiak egiteko, esanahiak negoziatzeko eta guztien artean ekintza-planak hainbat alorretan ezartzeko.

Irakasleek eta ikasleek orain dituzten zereginak ikasgelaren antolakuntzan eta kudeaketan adierazten dira zuzenean.

Irakaskuntza transmisiboak berez duen zorrozatasuna baztertu da eta **ikasgela gune irekia eta malgua bilakatu da; horrek aukera ematen du talde-lana egiteko**, eztabaidatzeko eta informazioak, iritziak, ideiak, ekimenak, etab. trukatzeko.

Atal honetan planteatu ditugun jarraibide metodologikoez eskatzen dute **ikasgela gune malgua izatea, ikasleria heterogeneo batekin eta non taldeka lan egingo den**.

5.4. Espazioa eta denbora.

Oinarri gisa hartuko da Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiko ikaskuntzak testuinguru formaletan gertatzen direla, **eta gero eta gehiago testuinguru ez formaletan ere**.

Hortaz, eskola eremua ez da ikaskuntza hori ematen duen bakarra, eta ingurunean (familia, auzoa, hiria, lagunak, etab.) edo horien bidez lortutako ikaskuntzek gero eta paper garrantzitsuagoa dute.

Formalki, ikasleen eta irakasleen arteko harremanen eremu nagusia ikasgela da; ikastetxeko eta hortik kanpoko beste lekuek, ordea, gero eta garrantzi handiagoa dute.

Puntu horretan kontuan hartu behar dira **inguruneen gaitasun hezitzailea** eta **hiri-herri hezitzaileen** mugimendua, orokorrean ikaskuntzaren medesetan, eta zehazki gure ikasgaiaren mesedetan baliabide eta aukera multzo bat (museoak, bisita gidatuak, elementu kulturalak, etab.) eskura jartzen dutenak.

Ez da ahaztu behar teknologia berriek espazio tradizionalaren mugak gainditu dituztela eta izaera globaleko ezagutzarako eta elkarrekintzarako eremua ireki dutela. Horregatik, Gizarte Zientzien ikasgeletan **Internetek eta teknologia berriek eginkizun garrantzitsua izan behar dute**.

Klasearen antolakuntza, hein handi batean, irakasle bakoitzaren erantzukizuna den arren, zentroaren antolakuntza orokorra eta maila administratiboetan hartutako erabaki zehatzek zuzeneko edo zeharkako eragina izan dezakete horretan.

Ikasle-talde osoari irakastea eta ikasleen taldeko zein banakako lana alderdi garrantzitsuak dira eskola antolatzeke moduari dagokionez. Eskolak antolatzen diren hainbat moduren "argazki" bat izatea, unean bertakoa edo estatikoa, baliagarria izan daiteke irakasleak eta ikasleak nola komunikatzen diren ulertzeko eta metodo horien onargarritasun maila egiaztatzeke.

Irakasle berak ikasgela antolatzeke hainbat estrategia erabil ditzake eta klase berean horietako bat baino gehiago baliatu ditzake. Irakasleak klase osoari ikasgai magistrala ematea oso metodo eraginkorra izan daiteke, antolakuntzak denbora gutxiago eta kontzeptuen aurkezpenek denbora gehiago eragiten duelako.

Irakasleek aurkezpenak egin ditzakete ikasle guztien aurrean, baita eztabaidak eta erakusketak gidatu ere.

Ikasleen banakako lanarekin batera, antolakuntza modu hori aski erabilia izan da tradizionalki. Baina ikasleentzat onuragarria izan daiteke ere **talde txikitik lan egitean**

gauzatzen lankidetzan oinarritutako ikaskuntza, elkarri lagundu diezaioketelako eta gaitasun txikiagoa duten horiek banaka egingo ez zituzten zereginak aurrera eraman ditzaketelako. Gizarte Zientziek lantzen dituzten gaien ezaugarriei esker, lan-mota horiek eraginkortasunez egin daitezke.

Talde-lana ikasleen garapen sozial eta afektiboa gauzatzeko bide bat da. Taldekatzeko modua ere ikaskuntza banakako beharretara egokitzeko estrategia eraginkorra da.

Gizarte Zientzien ikasgela-laborategia

Sor daiteke Gizarte Zientzien ikasgela-laborategia?

Bai, aurreko guztia esanda ere, ikasgaiaren ikaskuntzan zeregin garrantzitsua izan dezaketela uste da. Beraz, Gizarte Zientzientzako bakarrik den ikasgela-laborategia antola daiteke, **ikasleen lana girotzeko eta motibatzeko gunea izan daitekeelako**.⁴

Hasteko, hauek izan daitezke gune hori instalatzeko arrazoietako batzuk:

- Gogoetarako eta arazo bat aurkezteko, hori ebazteko, aztertze edo tratatzeko gune bat diseinatzea.
- Alde batera uztea gai bat aurkezteko, sakontzeko eta ikaskuntzak egiaztatze errutina.
- Pentsatzeko gune ludiko bat eranstea.

Bigarrenaz, argi dago gizarte-arazoak lantzeko laborategi bat diseinatzeak **zientzia egiteko beste ikuspegi bat eskatzen duela eta ikasgai batentzako gunearen ideia apurtzen duela**, irakaspen-proposamena aurrera eramateko moduan duen eraginaren ondorioz.

Kasu horietan, askotariko diziplinetako gaien integrazioaren alde egingo da, baldin eta arazoak errealak edo garrantzi handikoak badira.

Gertaerarekin "jolasteak" gertaera aldatzea esan nahi du, ondoren aztertze diferentziak sortzea, eta hori ikasleek egitea nahi da, irakasleak egin ordez. Lan-modua Gizarte Zientzietako klaseetan sustatzen dena ez beste bat da; aurrekoan, azalpenek eta narrazio-iturrien edo garapen irakurketek aurkezpena nagusitzen den ulermen-eredua ezartzen dute, irakasleek ikasgeletan zuzentzen dutena. Litekeena da Gizarte Zientzien curriculum osoa praktika horien bidez garatu ezin izatea; **gai nagusiak bai, ordea**.

Aukeratutako gaien eta oraineko gizarte-arazoen arteko lotura ezartzeak aukera ematen du ere komunikabideen dibulgazioaren aurkako **ikuspegi kritikoa ezartzeko**. Laborategiaren erabilera, gainera, eskakizun hauek dituzten gaietarako pentsatuta dago: eztabaida sakona, arazo bakar baten bertsio alternatiboen ezagutza eta landuko den gaiak gizartean eta kulturean izango dituen eraginak aztertze ikuspegi zorrotza eta konprometitua.

Irakaslearen zeregina izango da "jokoaren" arauak ezartzea eta betetzen direla egiaztatzea. Xedea da zientziak proposatzen digun ereduari jarraiki hitz egitea eta arazoitzea.

Bestelako arrazoak eta iritziak bilatzea, bestelakotasunen arrazoak aztertzea eta iritzia eskatzea. Hau da, lan-modalitate honetan ikasleentzat lagungarriak izan daitezken pertsonak (informatzaileak, lekukoak, etab.) aurkitzeko ikasgelaren joko irekitzea.

⁴ LITWIN, Edith: *El aula-laboratorio de Ciencias Sociales*.

Gizarte Zientzietako laborategiaren kasuan, gune horiek ikasgelak, liburutegiak edo informatika-gelak izan daitezke. Baina eguneroko lana egiten den gunea kasu guztietan bera bada ere, **altzariak beste era batean jarri ditzakegu, xaflak, mapak, koadroak, Interneterako sarbidea edo egunkariak gehitu ditzakegu, gaiak eta arazoak lantzeko beste modu bat ezartzeko eta girotzeko**. Badakigu pentsatzeko nahitaezko baldintzak direla adimen irekia eta kontsultarako baliagarriak diren materialak izatea.

Ingurune motibatzailea izateak aldatu egiten du esperientzia berrien garapenean mesedegarri izan daitezkeen ezagutza eraikitzeke modua.

Zeintzuk dira aukeratu daitezkeen gaiak?

Uste da Gizarte Zientzietako ezagutza zientifikoa bereganatzeak barne hartzen duela fenomeno azterketaren izaera interpretatzailearen onarpena, gertaera baten zentzuaren eta irismenaren azterketa, behin-behinekotasun izaeraren onarpena eta haren ikerketarako hainbat ikuspegi balorazioa. Hori lortzeko litekeena da gertaeraren ondorioak testuinguratu, erlazionatu, kokatu eta ulertu beharra dimentsio berrietan.

Gizarte-antolakuntzarekin zuzenean lotuta dauden gaiak ikasteko: demokrazia, ordezkartasuna, gizarte-arazoak.

Beste talde batean, laborategia aukeratzea hilean behin tokiko edo mundu mailako ondorioak izango dituen berria aztertzeke edo gizarte-diskriminazioko kasuak aztertzeke.

Antolatzeke moduari dagokionez, abiapuntu gisa har daiteke gaur egungo arazoan ezagutza edo gai garrantzitsuen, errepikarien edo gizarte-inpaktua dutenen berrikuspena.

Interesgarria da gaiak aukeratzeko erabiliko diren irizpideak zehaztea eta horiek lantzeko ikasleek jarraitu beharko dituzten bideak hautatzea.

Denbora aldagai bat da, eta horren antolamenduak ahalbidetu behar du ikasleek oinarrizko gaitasun guztiekin lotutako ikaskuntza guztiak bereganatzea. ***Banakako eta taldeko lana egiteko aukera egon behar du.***

Halaber, kanpora ateratzeko, ingurunean ikasteko eta landa-lanak egiteko (museoak eta erakusketak bisitatzea, informazioa biltzea, etab.) uneak aurreikusi behar dira.

5.5. Baliabideak eta materialak.

Egun, aukerak ***amaigabeak dira***, ikasgelako baliabideen eta materialen erabilgarritasuna eta euskarriak bezala. Gainera, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaiaren kasuan, gero eta zabalagoak eta aberatsagoak diren herri eta hirietan gune irisgarriak ditugu, errealitatearen bestelako ikuspegiak ematen dituztenak, eta ikasgelako lana eta kanpoko egoerak erlazionatzen laguntzen dutenak.

Erabil daitezkeen baliabide eta materialen kopurua zerrendatzea ezinezkoa denez, garrantzitsuagoa iruditzen zaigu irakasleek eta ikasleek berriarekiko, sormenarekiko eta ikasgelan eta hortik kanpo gertatzen denaren arteko etengabeko mugikortasunarekiko jarrera irekia izatea.

5.6. Jardueren antolakuntza.

Nola antolatu ditzaket jarduerak?

Ikaskuntzaren plangintza ez da klaseko helburuarekin hasi eta ebaluazioarekin bukatzen den ekintza lineala. Ulermenerako gaitasunek sustatzen duten ikaskuntza jarduera jarraitua da, ***etengabe berrelikatzen dena eta ebaluazioarekin hasten dena***. Eta ez alderantziz. Eskolak antolatzerakoan lau ideia nagusi daude: topiko generatiboak, ulermen-mugak, ulermen-ariketak eta ebaluazio diagnostiko jarraitua.

Hala ere, ***sekuentzia didaktikoa da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren jarduera-multzoa antolatzen, sailkatzen eta hierarkizatzen duena***.

a) Sekuentzia didaktiko baten ezaugarriak

Ikaskuntzaren eta ikasleen beharren inguruan aurreko ataletan deskribatutakoa oinarri hartuta, beharrezkoa da ikasgelako jarduera planifikatzeko eta antolatzeko erredu didaktiko bat bilatzea, aipatutako planteamendu metodologikoei erantzungo diena eta oinarrizko gaitasunak garatzen lagunduko duena. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela definitutako erredu didaktikoarekin bat datorren metodologia-erredu bat eta ikaskuntza-prozesu horretan laguntzen duten sekuentzia didaktikoak izatea.⁵ Bi elementuak lotuta daude, sekuentzia didaktikoen jardueren diseinu zehatzean ikaskuntza-metodologia zehazten baita.

Aurkezten den erredua sekuentzia didaktikoarena da: koordinatutako jarduera-multzo bat da, helburu batera, produktu batera eta amaierako lan batera bideratutakoa.

Sekuentzia didaktikoa honelakoa izan behar da:

- Ikasgelako lan-unitatea izan behar da.
- Bizitza errealekin lotutako egoerak edo arazoak planteatu behar ditu.
- Ikasleriaren bizitzaren testuinguruak adierazi behar ditu.
- Ikaskuntza-helburu zehatza izan behar du.
- Prozesuaren zati nagusi gisa ebaluazioa izan behar du.
- Ikasitakoa egoera berrietan erabiltzen lagundu behar du.



Jarduera didaktikoa planteatzeko modu honek ikaskuntza-eduki guztiak integratu beharra azpimarratzen du, eta beste material askoren gehiegizko zatikatzearen aurrean, modu koherentean antolatzen ditu eduki horiek ikasketa global eta aktiboaren mesedetan. ***Eginez ikastea sustatzen duenez, zentzua eta funtzionalitatea ematen die.***

Sekuentzia didaktikoaren eskema honek ezaugarri horiek jasotzen ditu. Sekuentzia didaktikoak planifikatzeko irakasleek jarraitu dezaketen eskemaz gain, ikasgelako jarduera-sekuentziaren osagaiak ere proposatzen dira: ***planifikazioa, egitea eta aplikazioa.***

⁵ Monografikoa: *Proyectos para Ciencias Sociales. Proyecto IRES*, Alminar aldizkaria, 39. zk.

b) Sekuentzia didaktikoaren plangintza

JARDUEREN SEKUENTZIA



LAN-ESKEMA

Tartean sartutako alorrak: GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA

Gaia: BIZTANLERIA-MUGIMENDUAK

Maila:
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2. maila

Saio kopurua: 8 lan saio.

Proposamena testuinguratzea:

Abiapuntu gisa hartuko da immigranteen etortzearen eta gizartean parte hartzearen eraginez gertatzen ari den gizarte-errealitatearen aldaketa.

Biztanleria-mugimenduak etengabeak izan dira gizadiaren historian zehar. Hemen eta orain, gure gizartea immigranteak hartzen ari da, eta horrek aldaketak eragiten ditu bai horren egitura bai funtzionamenduan.

Landutako oinarritzko gaitasunak:

1. Gizarte eta hiritar-gaitasuna. Jarduerak: 1-2-3-4-5-6-7-8-11-12-13-14-15-16-17
2. Ikasten ikasteko gaitasuna. Jarduerak: 2-3-4-5-6-7-8-9-10-11-12-16
3. **Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.** Jarduerak: **1-2-3-5-6-8-9-10-12-13-14-16**
4. Gaitasun digitala. Jarduerak: 3-6
5. Norberaren autonomia. Jarduerak: 2-3-4-5-6-7-8-9-10-12-14-15-16
6. Matematikarako gaitasuna. Jarduerak: 16

Helburu didaktikoak:

1. Gaur egungo gizartearen zati den immigranteen etengabeko etorrera ulertzea.
2. Historian zehar gertatutako biztanleria-mugimenduen zergatiak, zentzua, etab. ulertzea.
3. Etorkinekiko enpatia adieraztea.
4. Biztanleriaren harrera- eta irteera-gizarteetan gertatzen diren mota guztietako aldaketak identifikatzea.

Edukiak:

- 1) Biztanleria-mugimenduen arrazoiak eta ondorioak azaltzeko mota guztietako informazioa lortzea eta berriro lantzea
- 2) Historian zehar gertatutako biztanleria-mugimenduak
- 3) Migrazio-mugimenduen arrazoiak eta ondorioak
- 4) Gizarte-, kultura-, ekonomia-aldaketak irteera- eta harrera-gizarteetan
- 5) Etorkinak hartzen dituen gizartean gertatzen diren aldaketak ezagutzea eta horiekiko jarrera ona izatea.

Jardueren sekuentzia: *

- a) Plangintza

“HASI AURRETIK. ZER EGIN NAHI DUGU?”

Gaiaren sarrera, motibazioa.
1etik 5erako jarduerak

- prentsa-artikuluak
- lan-kontratua
- helburuak eta ebaluaziorako irizpideak jakinaraztea
- lan-prozedura
- egin beharreko lanaren ezaugarriak ezagutzeko

b) Gauzatzea

“LANEAN HASIKO GARA”

Gaiaren eta talde-lanaren garapena

1etik 16rako jarduerak

Errealitatearen ulermena hobetzeko behar diren baliabideak bereganatzea

c) Aplikazioa:

“IKASITAKOAREKIN ERREALITATEA BEHATZEN DUGU”

Lortutako informazioa eta baliabideak aplikatzea egoera berriak ulertzeko.

Jarduerak: 16 eta 17

Ebaluazioa

Adierazleak:

1. Ikertutako fenomenoari buruzko informazio nahikoa, fidagarria eta zehaztua lortu du.
2. Hasieran planteatutako hipotesiak azaltzen laguntzen duten erantzunak lortu ditu eta laburpen-lanean erantsi ditu.
3. Informazioa modu argian aurkeztu du
4. Lana behar bezala aurkeztu du
5. Modu egokian arrazoitutako ondorioak lortu ditu, ikertutako gizarte-fenomenoen ulermena errazten dutenak.
6. Talde-lan ona egin du
7. Etorkinak hartzen dituen gizartearen ezaugarri aldakorrei buruzko ezagutza pertsonala hobetu du
8. Bereak ez diren talde sozial eta kulturekin enpatia izateko ahalmena hobetu du

Tresnak:

A) JARDUEREN SEKUENTZIAN

- Autoebaluazioa eta koebaluazioa. Jarduerak: 4-5-9-17
- Talde-laneko kontratua Jarduerak: 2
- Orientabide-oinarriak, laguntza-eskemak. Jarduerak: 3-6-7-8

B) IRAKASLEAK ZEHAZTEN DUEN BESTE EDOZEIN

- Idatzizko frogak
- Irakasleen behaketa

5.7. Edukiak aukeratzeko/lehenesteko irizpideak.

Zer eduki aukeratu eta zer ordenatan?

Edukiak aukeratzeko **paradigma kritikoa hartzen da** abiapuntu gisa. Ikuspegi horretatik, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia ikasgaia aldaketa-prozesuan dagoen gizarte-eraikuntza da, gizarteak une zehatz batean planteatzen dituen arazoei erantzuten saiatzen dena, eta erlatibismoa ere duena.

Aukera horrek **mundua ezagutzeko, ulertzeko eta interpretatzeko balio duen ikaskuntza** berreskuratzen du, eta ikasleek gizartearekiko duten konpromisoa sustatzen du. Gai batzuen inguruko kezkek ere adierazten ditu, hala nola gizadiaren arazoak, hegemoniarik gabeko gizarte-taldeak, kultura eta genero aniztasuna, berdintasunik eza, gatazka armatuak, munduaren funtzionamenduan dugun elkarrekiko mendekotasuna eta eguneroko bizitzako arazoak.

Aukeratutako edukiak garrantzitsuak eta motibatzaileak izan behar dira ikasleentzat, eta horien testinguru kultural eta sozialarekin erlazionatu behar dira

nolabait, edukiak baloratzerakoan aplikagarritasuna eta funtzionalitatea hartzen dituelako kontuan ikasleriak.

Ikasleen logikatik, ideietatik eta kontzeptuetatik abiatzea komeni da, pixkanaka zientziaren logikara hurbilduz, ikaskideen, irakasleen eta diziplinen edukien artelko elkarreraginaren bidez.

Ikasleriaren motibazioa handituko da, eta edukiak aurkeztuko dituzten galdera edo ebatzi beharreko arazo baten, erabakiak hartu beharreko kasu baten edo ikerketa txiki baten moduan.

Komeni da edukiak **irakaskuntza-ziklo txikietan** antolatzea, ezagutza eraikitzen laguntzen baitu.

Fase honetan hainbat maila edo ikuspegi egotea proposatzen da. Hala, gizarte-errealitateara hainbat bidetik hurbilduko gara.

Lehenengoa. Gizarte-fenomenoetara hurbiltzeko lehenengo ziklo bat, **ikuspegi panoramiko** gisa, gizarteko giza jardueri buruzko eduki sinpleak aurkeztuko dituena: bizitzea, ekoiztea, harremanak izatea, antolatzea, pentsatzea, etab. Lehenengo ziklo horretan, ikerketa-objektuak (edukiak) aukeratzerakoan gizabanakoen eta gizartearen arteko harremanei buruzko arazoak edo oinarrizko galderak aintzat hartuko dira.

Bigarrena. Bigarren zikloan, gizarte-errealitatearen aztertuko da oinarri hartuta ingurunearen eta giza komunitateen arteko harremanen inguruko arazoek planteatzen dituzten **ikerketa-objektuak**, ez bakarrik Geografiaren ikuspegitik, baizik eta beste ikuspegi batzuk integratuz. Edozein kasutan, denbora-dimentsioa kontuan hartuko da, denboran zehar gizakiaren eta ingurunearen arteko harreman-modu ezberdinetatik eta harreman horien prozesu sinpleen azterketatik abiatuta.

Hirugarrena. Hirugarren zikloan **gizarte-eredu ezberdinekin** lotutako arazoetan sakonduko da, gaur egun zein iraganekoetan, eta edozein kasutan ere, prozesu berezietan eta paradigmatikoetan jarriko da arreta, aldaketa- eta akulturazio-prozesuak kasu.

Laugarrena. Amaierako ziklo honetan **egungo munduan garrantzitsuak diren gizarte-arazoak** aukeratuko dira; horiek aztertzeko iragan hurbila baliatuko da, eta edozein kasutan, aurrez bereganatutako oinarrizko ezagutza-tresnak erabiliko dira.

5.8. Gizarte Zientzien ikaskuntzari dagozkion alderdiak.

***Gizarte Zientzien ikaskuntzarekin bakarrik lotutako zailtasunak daude?*⁶**

Bai, ikasgai honetan, ikaskuntza guztiek dituzten zailtasunez gain, beste batzuk agertzen dira, egokia den estrategia metodologikoaren bidez gainditu behar direnak. Zailtasun horien artean hauek daude, besteak beste: enpatia, kronologia, denbora historikoa, kausalitatea, mapak irakurtzea eta ulertzea.

Enpatia.

Gertaera historikoak ulertzerakoan aski zabaldua dagoen zailtasuna da. Zailtasuna agertzen da ikasleek **bereak ez diren aroetan bizitako pertsonen mentalitateak eta ohiturak ulertu** behar dituztenean anakronismoan erori gabe.

⁶ LICERAS, Ángel: *Dificultades en el aprendizaje de las Ciencias Sociales. Una perspectiva psicodidáctica*, GEU.

Enpatia beste pertsonaren lekuan jartzeko gaitasun intelektuala da, iraganaren ikuspegitik haren pentsamenduak eta ekintzak ulertzea ahalbidetzen duena; **gertaera historikoak ezagutzeko funtsezko elementua da.**

Hainbat modutan landu daiteke: ezagutzen denarekin analogiak bilatuz, ikasleen sormena piztuz eta iraganeko errealitateak ulertzea bideratuz; norbera testuinguru zehatz batean sartzeko proiektu bat osatzen duten jardueren bidez, eraikuntza irudimentsuen bidez, kanpoko behatzaile baten ikuspegia baliatuz; jokuen eta simulazioen bidez; ezustekoak gertatzen diren jardueren bidez; iragana eta orainaren arteko kontrasteen bidez, etab.

Kronologia.

Zientzia historikoan, kronologia hartzen da historia neurtzeko tresnatzat, aldi berean, **iraupenaren eta ordenaren kontzeptuak** ulertzea eskatzen duena.

14-15 urtetik beheragoko umeentzat oso zaila da bi kontzeptu horiek menderatzea, gehienek Kristo aurreko eta Kristo ondoko kontzeptu kronologikoa ulertzen badute ere.

*Historia irakasterako kronologia beharrezkoa den arren, ezin daiteke ardatz egituratzaile bakarra izan, baizik eta ikasleen ezagutza historikoa oinarri hartuko duen **denbora-mapa** bat.*

Denbora historikoa.

Funtsean, denbora historikoa iraupen bat da, aplikatzen dugun kronologiatik nahiko independentea den eremuan kokatzen dena. Esaterako, Historiako periodo guztien iraupena ezagutu dezakegu; periodo batetik aurreko edo ondoko periodora igarotzean gertatzen diren harremanak ez, ordea, eta horrek hasiera eta bukaera zehaztasunez mugatzea eragozten du. **Denbora historikoa menderatzea kronologia historikotik harantz doa.** Denbora historikoa jarraitua da, gizarte-aldaketa, berriz, etena. Ikasleek iraupenaren nozioa pixkanaka eraikitzen dute, esperientzia pertsonaletatik abiatuta, eta horregatik, subjektibitate kutsu handia du.

*Fase horretan egiten den denbora historikoaren irakaskuntza abiatu behar da **denbora gaietara buruz ikasleek aurretik dituzten ezagutzetatik, eta horiek kontuan hartuta, hurbiletik eta konkretutik hasita urruntasun eta abstraktutasun handiena duteneraino iritsi behar da**; indukziozko prozesua izan behar da, eta irakaspenean "denbora-mapak" egin behar dira, denbora-lerro batean ezagutzak eta datak erlazioatuko dituztenak, non denbora aztertzeke ardatzen arabera edozein gertaera interpreta daitekeen.*

Kausalitatea.

Denbora historikoa ulertzeak kausazko segida historikoaren kontzeptua menderatzea eskatzen du, eta horrek bi zailtasun-maila ditu: hasteko, aintzat hartu behar da kausa eta efektuaren arteko denbora-tartea historian beste alor kausaletan baino handiagoa dela, **historian, gertaera historikoek epe motzerako, ertainerako eta luzerako ondorioak dituztelako sarritan.** Oro har, gertaera historikoek jatorri bat baino gehiago dute, ondorio bat baino gehiago sortzen dute eta ez dute harreman linealik sortzen.

Gerta daiteke ikasleen zailtasun handiena kausalitate anitza era egokian ulertzea izatea. Hala ere, kontzeptu hori menperatzea oso garrantzitsua da Gizarte Zientzien ikaskuntzan, **kausazko azalpenak historia deskriptibo batetik esplikatzaileara igarotzea ahalbidetzen duelako.**

Historiaren kausalitatearen ulermena lantzea ez da bakarrik gertaera historikoen arrazoi-multzo handi edo txiki bati aurre egitea.

Beharrezkoa da horiek lehenesten eta sailkatzen irakastea eta ikastea eta kausazko hierarkia bat ezartzea.

Mapak irakurtzea eta ulertzea.

Kartografia oinarrizko tresna da gizarte-diziplinetan oro har, Geografiaren arloan saihestezina eta pertsonen egunerokoan arrunta, baina hura erabiltzeak eskatzen du kartografiaren irakurketarekin, analisiarekin eta interpretazioarekin lotutako espazio-kontzeptu eta trebetasunak ondo menderatzea.

Mapak eta maketak abstraktuak dira, eta ondorioz, ulertzeko zailak izan daitezke informazioa era zehatz batean aurkeztea beharrezkoa duten ikasleentzat. Mapak ulertzea eta kartografian oinarritutako komunikazioa ikaskuntza-arazo konplexuak dira hainbat ikaslerentzat, **mapa bat interpretatzea pixkanaka eta praktikarekin garatzen den gaitasuna baita.**

Hizkuntza kartografikoa ikasterakoan azaltzen diren arazo ohikoenak hura osatzen duten oinarrizko elementuen oinarrizko ezaugarrietan dute jatorria.

- Proiekzio-mota
- Eskalaren interpretazioa
- Irudikatutako alderdien aukeraketa
- Konbentziosko zeinuak eta sinboloak
- Hiru dimentsioetako errealitatearen bi dimentsiotako irudikapena
- Mapan orientatzea eta kokatzea
- Kontzeptu geografikoak

Azpimarratu behar dira Geografiaren irakaskuntza-arloko aipatutako irizpideak: **ezagunetik ezezagunera igarotzea, konkretutik abstraktura eta zehatzetik orokorrera.** Ez da ahaztu behar mapen irakurketaren gaitasuna ezingo dela lortu ez une zehatz batean ezta denbora-tarte txiki batean ere, **baizik eta fase guztian zehar lan jarraitua eta programatua beharko da.**

5.9. IKTak eta Gizarte Zientziak.

Gainerako eskola-ikasgaiak bezala, Gizarte Zientziak ezin dira teknologietatik kanpo utzi.⁷

Nola txertatu behar dira IKTak ikasgaiaren irakaskuntza-prozesuan?

Lehenik eta behin, uste dugu Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren elementu egituratzaile eta eragileak **metodo didaktikoa eta estrategia metodologikoen multzoa** direla; denboran zehar egiaztatu izan dira eta Gizarte Zientzien ikaskuntzan **eraginkorrak** direla erakutsi dute.

Horiek horrela, ikasgaiaren metodo didaktikoaren eta estrategia metodologikoen **mende** egongo da IKTen zeregina Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Eta IKTak txertatuko dira horien erabileran sorburu izango duten **kalitate handiagoko** Gizarte Zientzien ikaskuntzen kasuan. Bigarrenez, ikasleriaren gaitasun digitala landu eta garatuko da.

Ikasgelan IKTen zeregina eta erabilera zehazteko **dekalogo**⁸

⁷ ARASA SALES, Cristina: *El método didáctico a través de las TIC*, Nau Llibres.

- 1) Garrantzitsuenak izan behar dira beti Gizarte Zientzien edukiak eta helburuak, ez teknologiak.
- 2) IKTek ez dute Gizarte Zientzien ikaskuntzan efektu magikorik eta ez dute automatikoki hezkuntza berrikuntzarik eragiten.
- 3) Metodo edo estrategia didaktikoa da, planifikatutako jarduerekin batera, ikaskuntza mota bat edo bestea sustatuko duena.
- 4) IKTak erabili behar dira ikasleriak teknologiekin batera “gauzak egiten” ikas dezan.
- 5) IKTak erabili behar dira bai Gizarte Zientzien ikaskuntzan lagunduko duten baliabide moduan, baita teknologia digitalean eta komunikazioarenean gaitasun espezifikoak bereganatzeko eta garatzeko ere.
- 6) Gizarte-zientzietan, informazioa bilatzeko, kontsultatzeko eta sortzeko tresna izan daitezke IKTak, baina baita beste pertsonekin harremanak izateko eta komunikatzeko ere.
- 7) Gizarte-zientzietan, IKTak erabili behar dira ikaslearen banakako lanean zein ikasle-taldean artean lankidetzan egindako ikaskuntza-prozesuak garatzeko, aurrez aurre edo modu birtualean.
- 8) IKTekin sekuentzia didaktiko bat, proiektu edo jarduera bat planifikatzen denean, Gizarte Zientziak ikasgaiaren edukia eta helburua zehazteaz gain, horrek ikaslearengan sustatzen den gaitasun teknologiko mota ere adierazi behar da.
- 9) Gizarte Zientzien saioetan IKTak erabiltzen ditugunean, inprobisazioa saihestu behar da.
- 10) IKTak erabiltzea ez da ikasgaiaren ohiko ikaskuntza-prozesutik kanpoko edo haren paraleloa den jarduera izan behar.

5.10. Ebaluazioa: ebaluatzeko irizpideak.

ELOren ezarpenetik eratorritarako curriculum berrien berrikuntza nagusia da ikaskuntza guztien amaierako erreferente izango diren gaitasunen txertaketa.

Horiek horrela, gaitasun horiek ebaluatzerakoan dator arazoa.

Gaitasunak, berez, ezin dira ebaluatu. Ezin dira gainditu edo huts egin ikasten ikasteko gaitasuna, norbanakoaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna eta gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, etab.

Curriculumak ikasgaietan antolatzen da, eta horien ardura da edukien bidez, fase horretako gaitasunek barne hartzen dituzten helburuak lortzea.

Beraz, helburuak ez dira lortuko oinarrizko gaitasunak modu egokian garatu ez badira. Horrenbestez, argi dago **helburuen funtzioa zuzentzea dela eta edukiak menderatuko dituztela**, horiek aldatu, zabaldu, taldekatu etab. daitezkeen helburuak alde batera utzi gabe.

Hori esanda, Gizarte Zientziak ikasgaia ebaluatzeko arazoa izaten jarraitzen dugu. Horretarako, bukaerako helburuekin bat etorritik, faseko maila bakoitzeko ebaluazio-irizpideak zehazten ditu curriculumak, eta horien barruan **ikasleengan behatu daitezkeen ebaluatzeko hainbat adierazle** daude.

⁸ ÁREA M.: Algunos principios para el desarrollo de buenas prácticas pedagógicas con las TIC en el aula.

Ebaluazio-irizpide horiek ikasleek zenbateraino bereganatu dituzten izango da erreferentea, betiere kalifikazio bat lortzeko ebaluatzeko tresna egokiak oinarri hartuta.

Proposamen horren muina da eredu komunikatibo eta psikosozialaren barruan ebaluazio bat egitea.⁹

Eredu komunikatiboa (Cardinet, 1992) edo psikosoziala aukeratu egin da ikaskuntza gauzatzen den testuinguru sozialak duen garrantzi handiagatik. Proposatzen dugun ereduaren ideietan eta proposamenetan sakontzeko, alderdi garrantzitsuenetan jarriko dugu arreta:

1. **Ikaskuntza ikasten duen subjektuaren eraikuntza pertsonala da;** bertan eragina dute ikaslearen ezaugarri pertsonalek (ezagutza-eskemak, alde aurretiko ideiak, dagoeneko hartutako ohiturak, motibazioa, aurreko esperientziak, etab.) zein ikasgelan sortzen den testuinguru sozialak.
2. Garrantzi handia dute ikasleen eta irakasleen arteko bitartekotzak. Ikasleriak, hainbat arrazoi direla medio (gizarte-testuingurua edo ezagutza-eskemen ezaugarriak), ez du irakasleriaren eskaerak modu berean hautematen; horregatik, **negoiazio-prozesuak aurrera eramatea komeni da lortu nahi diren helburuen edo ebaluatzeko irizpideen inguruko ideiak partekatzeko.**
3. **Komunikazioa hobetzeko eta ikasten laguntzeko tresna bihurtuko da ebaluazioa,** ikasteko bide ona delako ikasleek pixkanaka jabetzea irakasleriaren ebaluatzeko tresnez eta irizpideez, egoera didaktiko egokien bidez. Prozesu horretan, bereziki lagungarriak dira autoebaluazioa egiteko edo elkarri ebaluatzeko irizpideak helarazteko jarduera didaktikoak. **Testuinguru horretan, ebaluatzeko jardueren eta ikaskuntza jardueren arteko muga zehatzik ez dago.**
4. Ezinbestekotzat jotzen da ikasleen autonomia sustatzea; horretarako beharrezkoa da horren aldeko metodo pedagogikoak garatzea. **Ebaluazio hezitzailea delakoa proposatutako ereduaren elementu nagusienetarikoa bat da, ikaskuntzaren kontrola eta erantzukizuna ikasleak bere gain hartzea nahi duelako, autoebaluaziorako estrategiak eta tresnak erabiliz.**

Ebaluazioaren ikuspegi komunikatiboak ebaluazio hezitzailearen mugak gaintitzen dituen ikaskuntzarako bide berriak irekitzen ditu, horrek proposatutako **elkarrekintzak, ikasgelaren gizarte-kudeaketak eta ikasleari ikaskuntzaren erantzukizuna emateak** nabarmen handitzen dituelako ezagutza praktikara eramateko aukerak, irakasleentzako kostu askoz txikiagoarekin eta ikasleentzako onura handiagoarekin, ikaskuntzari dagokionez.

Hein handi batean, hezkuntza-aldaketa eta berrikuntza guztien ardatza da ebaluazioa, edozein eredu pedagogiko eta metodologiarena.

Hala, Jorba eta Sanmartí (2000) bezalako egileek azpimarratzen dute heziketa-jarduera aldatzeko ebaluazio-jarduera aldatzea beharrezkoa dela, haren helburua eta zer eta nola ebaluatuko den, alegia.

Badira ebaluatzeko tresna batzuk, modu egokian erabiltzen badirenak ikaslea ardatz gisa hartuko duen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan lagunduko dutenak.¹⁰

⁹ QUINQUER, Dolores eta beste batzuk, BENEJAM, Pilar eta PAGÉS, Joan (Koord.): *Enseñar y aprender Ciencias Sociales, Geografía e Historia en la Educación Secundaria*, Horsch.

¹⁰ ALFAGEME, Begoña eta MIRALLES, Pedro in Iber aldizkaria: *Instrumentos de evaluación para centrar nuestra enseñanza en el aprendizaje de los estudiantes*, 60. zk, 2009.

la bakarrik azterketa erabili ordez, beste tresna batzuk baliatzea proposatzen da, hala nola **klaseko koadernoak, aurkeztu beharreko lanen karpeta, paper zorroa eta mapa kontzeptualak**, ikasgelako tresna berritzaileak direnak. Tresna horiek ez dute soilik ezagutzen eskualdatzea neurtzen, horrez gain, ikasleek lortu beharreko gaitasunak bereganatzen ari diren egiaztatzen laguntzen dute, ikaskuntzen autoerregulazioa indartzen dute eta ikasleriaren eta irakasleriaren arteko elkarrekintza areagotzen dute (Alfageme, 2009).

Laburbilduz, oinarrizko gaitasunen garapenak **ebaluazioa birplanteatzea eskatzen du, ikasleek egoera errealean ikaskuntzei ematen dieten erabilera balioztatu ahal izateko**.

Ebaluazioa hobetzeko "ebaluazio-unitateak" sortu beharko dira, horiek irakaskuntza eta ikaskuntza sekuentzian (lan-unitateak) erantsi beharko dira eta "**akatsetatik ikastea**" ahalbidetzen duten autoebaluaziorako prozedurak erabili beharko dira.

Ikaslearen ikaskuntzarekin paraleloan, irakaslearen irakaskuntza-prozesua garatuko da eta ebaluazioa ahalbidetzen duten prozedura natural eta egokienak erabili beharko dira.

Amaitzeko, beharrezkoa da ebaluazioaren ebaluazioa (metaebaluazioa) bermatzeko prozedura diseinatzea, beharrezkoak diren hobekuntzak erantsi ahal izateko eta horrekin, hautatzeko eta baztertzekeo tresna bilakatzea saihesteko.

6.- Sekuentzia didaktikoen ereduak eta materialak.

Proiektuak:

Proyecto Gea-Clio. Modelo organizativo de Souto.

GEA-CLÍO proiektuak gizarte- eta ingurumen-arazo handienak diziplina zientifikoetan oinarrituta jorratu behar direla defendatzen du. Gizarte Zientziak arloko berrikuntzak baloratu genituenean aurkitu genuen "aterki" horren azpian nahastea eta azalekotasuna nagusitzen zirela, izaera globaleko interes-zentrotzat hartzen baitziren arazoak, eta bertan, ikaskuntza-ordena aurkitzea oso zaila zen. Gaur egun gertatzen den moduan, nahasketa gertatzen zen, eta denetatik pixka bat irakastea (gure aspaldiko arrazionaltasun ilustratuaz josita) ikaskuntza zail eta nahaspilatu batekin lotzen zen, irakasten ziren ideiak antolatzeke ordenarik ez baitzegoen ikasleen artean.

Kairos proiektua (multimedia)

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleriari laguntzeko programa da KAIROS. Komunikaziorako eremu bat eta lau proposamen ditu KAIROSek:

Historiako gai batzuen planteamendua. Abiapuntu gisa orainaldia hartuko bada ere, ez dira zehaztutako denbora-tarte historiko bati lotuak egongo, baizik eta espazioan eta denboran zehar ibiliko gara, orainaldiko kezkek baztertu gabe.

Historiaren didaktika sendotzera bideratutako ekarpen metodologikoak.

Sarearen nonahitasunari esker, eskolak eta ariketa osagarriak prestatzeko lagungarriak izan daitezkeen dokumentuak eskura jartzea.

Sarean dauden liburu eta argitalpen elektronikoen aurkezpena, irakaslearen prestakuntzarako eta ezagutzen etengabeko eguneraketarako baliagarriak direnak.

IRES proiektua

"Eskolan Ikertzeko Eredu Didaktikoa". Izaera alternatiboa duen eredu didaktiko honen hezkuntza-helburua da "ikasleen ezagutza aberastea", errealitatearen ikuspegi konplexuago eta kritikoago batera bideratuta, partaidetza arduratsu baten oinarria izango dena. Ezagutzaren ikuspegi erlatiboa, ebolutiboa eta integratzailea hartzen da bertan. Hala, eskolan bereganatu beharreko ezagutza zehazteko erreferente garrantzitsua da diziplinaren ezagutza, baina baita eguneroko bizitzaren ezagutza, gizarte- eta ingurumen-arazoak eta IRESek deitutako ezagutza "metadiziplinarra" (hau da, mundu-ikuskerara osatzen duten kontzeptu, prozedura eta balore handiak) ere. Eskolako ezagutza integratu horrek gero eta esanahi konplexuagoak erantsiko ditu, ikasleen ideia-sistemetatik hurbilago daudenetik irakaskuntza-prozesuen bidez lortu nahi direnetaraino. Eskolako ezagutzaren azalpen sinpleetatik konplexuetarainoko ibilbide hori ezagutzaren eraikuntzan aurrera egiteko hipotesi orokorra da (Grupo Investigación en la Escuela, 1991) eta edozein kasutan, ezagutza metadiziplinarrera bideratuta dago. Hala, ikasleen ideiek edo ikuskerek -eta ez bakarrik interesek- erreferentzia ukaezina eratzen dute, eta jasotako eskolako edukietan eta horien eraikitze-prozesuan eragina dute.

13-16 proiektua

Historiako hamalau unitate didaktiko biltzen ditu 13 eta 16 urte arteko gazteentzat. Honela egituratzen da unitate didaktiko bakoitza: unitatearen deskribapena, helburuak, edukiak, estrategiak, informazio osagarria, eta, zenbait kasutan, bibliografia. Unitate guztien ebaluazioa egiteko kapitulu bat dago amaieran.

Unitate didaktikoak:

Global express

Dimensio globaleko gaiak eta gertaerak lantzeko tresna da. Proposamen didaktiko bat da, eta irakasleriarentzako orientabideak eta gaiaren inguruko testuinguru-informazioa ditu. Global express proiektuaren helburua da ikastetxeetako ikasleek galderak egitea komunikabideek esaten dutenaren inguruan. Errealitatearen ikuspegi kritikoa sustatzean datza, munduaren egoera, eta bereziki garapen bidean dagoenarena ulertzen lagunduko duena.

Camino a Huambo.

Gymkhana bat da, eta gatazka armatuek biztanleria zibilarentzako dituzten ondorioak identifikatzea da haren xedea, guda batek eragiten duen milioika pertsonen exodoan arreta jarritz. "Errefuxiatuak" eta "erbesteratuak" bezalako kontzeptuak sartuko dira. Haren dinamika dela eta, taldekide bakoitzak bere trebetasunak edo gaitasunak eskaintzeko metodo onena da talde-lana, eta zailtasunak taldean gainditzeak eragiten duen pozaz gozatzea ahalbidetuko du.

Bi saiotan banatuko da: lehenengoan gymkhana egingo da eta bigarrean taldeko hausnarketa. Dinamika pentsatuta dago hiru pertsonatako zortzi talde sortzea ahalbidetzen duen klase batentzat.

Haití: cuando la tierra tiembla.

2010eko urtarrilean Haiti jo zuen lurrikararen kausak eta ondorioak lantzeko hezkuntza-proposamena da. Webguneetatik, artikuluetatik eta bineta grafikoetatik abiatuta, lurrikarak eragiten dituzten arazoak eta beste fenomeno naturalekin duten lotura ikusiko ditugu, Haitiri buruzko ikuspuntu zabalagoa lortuko dugu, hondamendien ondorioen eta pobrezia-arteko erlazioari buruzko gogoeta egingo dugu eta komunikabideen zeregina aztertuko dugu.

Material horrek simulazio-joko bat proposatzen du ere. Hondamendi bati aurre egiteko martxan jartzen diren laguntza-moten inguruko hausnarketa egingo dugu, eta, azkenik, laguntzeko egin ditzakegun banakako eta taldeko jarduerak aztertzeraz gonbidatzen du: kaltea jasan duen biztanleriari zuzenean laguntzeko ekintzak, gure ingurunea sentiberatzeko jarduerak eta erantzukizun politikoak eskatzeko mobilizazio ekintzak.

El petróleo, una riqueza envenenada.

Material honen helburu nagusia da ikasleria gure bizimoduan eta kontsumo-ereduan petrolioarekiko dugun mendekotasunaz ohartzea. Hala, mahaigaineratu egiten ditu Hegoaldeko biztanleriarentzako erregai horren ekoizpenak dituen ondorioak, petrolio izateak, erauzteak eta merkaturatzeak eragiten dituen arazo geoestrategiko eta ingurumenekoez harago.

Material honekin hasteko argazki bat aztertuko da, gaiaren inguruan ikasleek aurrez dituzten ezagutzen berri izateko. "Petrolio, pozoitutako aberastasuna" proiektuak, gainera, petrolioaren negozioaren atzean daudenen ikuspegi zabala eskaintzen du, ekoizten duten herrialde nagusietatik petrolio gordina fintzen eta merkaturatzen duten enpresetaraino. Agerian uzten du ere erregaiaren eta gatazka armatuen arteko harremana, herrialde hauei dagokienez, besteak beste: Angola, Sudán, Txad, Bolivia, Mexiko eta Ekialde Ertaineko herrialdeak. André Deoutol Txadeko nekazariaren historiaren bidez, petrolio dagoen eremuetan bizi den jendearen muturreko pobreziaz jabetuko dira ikasleak. Bukaerako helburua da injustizia hori aldatzeko ikasleek herritar gisa jarduteko beste modu batzuk aurkitzea.

"Historia, Kairós y Cronos".

Pablo Antonio Torres Bravo, Ediciones de la Torre, Madril, 2001.

DBHko 4. mailari hasiera emateko unitate didaktikoa da, baina aurreko kurtsoetara ere egokitu daiteke. Historiako gertaera garrantzitsuenak ezagutarazi nahi die ikasleei, denbora-mapa koherente batean prozesu historikoak kokatu eta erlazionatu ditzaten. Material hau Bigarren Hezkuntzako irakasleei denbora historikoaren ohiko alderdiak planteatzen lagundu nahi die. Denborazko nozioak jakintzat eman ohi dira, eta hori dela eta, denbora historikoa eta kronologia bereizterakoan akatsak egiten dira. Ez dira ezinbesteko bi alderdi ahaztu behar: iturrien eta interpretazioen arteko bereizketa egiteko espiritu kritikoan sakontzea eta horiek beste testuinguruetan erabiltzeko gaitasuna sustatzea. Biak historiako denborazko elementuekin lotuta daude.

"Viaje a la Antártida: taller de historia y de escritura". Un proyecto colaborativo.

Dolors Quinquer.

Proiektuaren xedea da XX. mende hasieran (esplorazio heroikoen momentuan) Antartidara egindako bidai bat birsortzea eta kontakizuna idaztea DBHko klase bateko ikaskide guztien artean. Lana egiteko Ernest Shackeltonen 1914 eta 1916 urteren artean Antartidara egindako

bidaia hartuko da erreferente eta ardatz gisa, baita oinarri dokumental eta elementu motibatzaile gisa ere.

Los movimientos de población.

Berritzegune Nagusia. Gizarte Zientzien, Geografiaren eta Historiaren aholkularitza.

Historiaren bidez, biztanleria-mugimenduen bilakaera ikusiko da. Iraganeko eta orainaldiko egoera aztertuko da.

Sekuentzia didaktiko honen abiapuntua immigranteen etorreraren eta gizartean parte hartzearen ondorioz aldatzen ari den gizarte-errealitatea da.

Biztanleria-mugimenduak etengabe gertatu izan dira gizadiaren historian zehar. Hemen eta orain, gure gizartea immigranteak hartzen ari da, eta egituran eta funtzionamenduan aldaketak eragiten ditu horrek.

Simulazioak:

Iter-itineris: una euroaventura medieval.

On line joko interaktiboa da Iter-itineris, eta Erdi Aroko Europa erdialdeko familia baten abentura du oinarritzat. "Brujasen, 1349an. Europako biztanlerian sarraski handia egiten ari da izurria. Hiriko merkatari aberats baten etxean, emakume gazte bat, Úrsula, orduei buruzko liburu bat idazten ari haren logelan. Haren gurasoak, Pieter eta Jutta, Veneziara egingo duten bidaia prestatzen ari dira, non Pieterrek negozio garrantzitsuak egin behar dituen. Etxeko beste gela batean, Hubert seme nerabeak Ibn Mussa maisu arabiarren ikasgaiak lantzen ari da.

Europako historiaren, geografiaren, literaturaren eta artearen ezagutzarekin lotuta dauden frogez eta jardueraz osatutako jokia da.

La historiadora.

Elizabeth Kostovaren "La historiadora" nobelan oinarritutako on-line abentura da.

La esperada.

Kathleen Mcgowanen "La esperada" nobelan oinarritutako on-line abentura da.

WebQuestak.

Los niños de la guerra. Ana Basterra eta Carlos Puerta.

www.saretik.net/gudarenumeak

La revolución industrial. Ana Basterra.

http://www.phpwebquest.org/wq2/webquest/soporte_tabbed_w.php?id_actividad=2550&id_pagina=1

Animazioak:

Studio Dogma

La imagen medieval, Isaac.

Cronología de la Edad Moderna.

Guerras de religión.

Primera Guerra Mundial.

Segunda Guerra Mundial.

Mapa animado de la Unión Europea.

La Guerra de Iraq.

Bisita birtualak:

Ars virtual.

Ondarearen mapa. ArsVIRTUALEK “Ondarearen Mapa” aurkezten du. Sarean nabigatzeko modu berritzailea da, non nabigatzailea 3D-ko bisita birtualetara sar daitekeen munduko mapa interaktibo baten bidez. Hala, atariko edukien ikuspegi globala izango du eta proiektuaren hedaduraz jabetuko da.

www.fundaciontelefonica.com/arsvirtual

Kolaborazio-proiektuak, lankidetzaproiektuak eta proiektu telematikokoak:

Interneteko hazkunde bizkorrak ***aukera eman du Gizarte Zientzien alorrean lankidetzasparruak eta izaera telematikokoak sortzeko.*** Orain, ikasleak eguneroko mundutik “atera” daitezke eta munduko edozein tokiko ikaskideekin abentura bat bizi.

Internet bidezko urrutiko lan hau, oro har, taldeka garatu beharreko jardura didaktikoak dituzten proiektuek osatzen dute, eta “postazko lagunak” izan ordez, helburu bat lortu behar duen taldeko kide dira parte-hartzaileak.

Jardura-mota horietan partaideei planteatzen zaizkien erronkak gainditzeko oso garrantzitsua da plangintza egiterakoan, elkarrekintza eta komunikazioa eraginkorrak eskatzea ikasleei. Bi horiek beharrezkoak dira eta adierazgarriak izan behar dute.

Jarraian aipatzen ditugu nazioarte mailan Internet bidezko lankidetzaproiektuen garapena sustatzen duten ekimen garrantzitsuetako batzuk.

Educalia.

Bartzelonako “La Caixa” Fundazioak sortutako gune birtuala da. Horren helburua da lankidetzaproiektu interesgarriak martxan jartzen laguntzea hainbat tokiko ikasleen artean. Proiektuen garapenean, ikasleek informazioa trukatu behar dute eta foroetan parte hartu eta eztabaidatu.

<http://www.educalia.org/>

Kli eta klik.

“Klik eta Klik” lehiaketa bat da, www.kliketaklik.com webgunearen bidez parte har daiteke eta hainbat motatako sei frogek osatzen dute (ikasgaien ezagutzak, trebetasunak, eztabaidak, etab.).

Proiektua gaurkotasunari itsatsita garatzen da. Lantzen diren gaien artean azpimarragarriak dira komunikabideek, gizarteak eta gazteek aipatzen dituztenak.

2009an, esaterako, segurtasuna Interneten izan zen gaia. “Ika Mika” frogan, ikastetxe bakoitzeko ikasleek gaia eztabaidatu behar dute bi ikuspegietatik. Aurtengo edizioan hauek aztertu behar dituzte: sare sozialetako pribatutasun arazoak, sarean ematen diren “ciberbulling” eta eraso kasuak eta Tuenti edo Facebook bezalako komunikazio-kanaletako argazkien erabilera. Horretarako, ikasleek beren jarrerak arrazoitzeko gaiaren inguruko informazioa bilatu behar dute.

www.kliketaklik.com

7. Bibliografía profesionala

HERNÁNDEZ CARDONA, X.: *Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, Graó, Barcelona, 2002.

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleei zuzendutako lan praktikoa da. Bertan honako hauen berri ematen da: Gizarte Zientzien didaktikaren inguruko eztabaidaren egoera (diziplina zientifiko gisa hartzean sortutakoa) irakaskuntza-ikaskuntzaren alderdi nagusiak eta ikasgelako jarduerarako gogoeta baliagarriak.

BENEJAM, P. eta PAGÉS, J. (Koord.): *Enseñar y aprender ciencias sociales, geografía e historia en la educación secundaria*, Horsori, Barcelona, 1997.

Obra klasiko hau Bigarren Hezkuntzako Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia irakasgaiko etorkizuneko irakasleei eta ezagutza-arlo honetako gogoeta eguneratu nahi duten irakasleei zuzentzen da, batik batik bat. Liburua hamar kapitulutan banatzen da. Gai garrantzitsuenak lantzen dira bertan, eta, aldi berean, Gizarte Zientzien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan esku-hartzea bideratu dezakeen esanahi-sistema sortzera eta partekatzerara gonbidatzen du irakurlea.

CARRETERO, M eta beste batzuk: *La enseñanza de las Ciencias Sociales, Aprendizaje VISOR*, 1989.

Gizarte Zientzien irakaskuntzaren arazoaren aurkezpen orokorra da, hiru alderdi kontuan hartuta: diziplina, psikologia eta didaktika. Hiru horien ikuspegi orokorra ematen saiatzen da, horien arteko lotura estua oinarri hartuta.

GRUPO ÍNSULA BARATARIA (KOORD.): *Enseñar y aprender ciencias sociales. Algunas propuestas de modelos didácticos*, Mare Nostrum, Madril, 1994.

Eraberritze pedagogikoko taldeen proposamen praktikoak dira, Gizarte Zientzien didaktikaren arlokoak.

TREPAT C. A. eta beste batzuk: *El tiempo y el espacio en la didáctica de las ciencias sociales*, Graó, Barcelona, 2002.

Lan honen helburua da denbora zein espaziozko nozioak ikasgelan lantzeko oinarriak ematea Gizarte Zientzietako irakasleei. Bigarren Hezkuntzarako egokiak diren jarduerak sekuentziatzeko eta garatzeko baliabide eta irizpide didaktiko sorta zabala eskaintzen du.

LICERAS RUIZ, A.: *Dificultades en el aprendizaje de las ciencias sociales. Una perspectiva psicodidáctica*, GEU, Granada, 1997.

Lan teoriko-praktikoa da, eta Gizarte Zientzien irakaskuntzaren zailtasun ohikoenei heltzen die: kronologia, enpatia, denbora historikoa, etab.

GONZÁLEZ, I.: *Una didáctica de la historia*. Ediciones de la Torre, Madrid, 2001.

Gizarte Zientzietako irakaskuntza-esperientzia bat kontatzen da, eta ikasleak historialariaren lekuan jartzen ditu.